TXOSTENA

43

EAEN GENERO-INDARKERIA DELA-ETA HILDAKOEN INGURUKO TRATAERA INFORMATIBOARI BURUZKO AZTERKETA (2015-2017)

begira

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EAEN GENERO-INDARKERIA DELA-ETA HILDAKOEN INGURUKO TRATAERA INFORMATIBOARI BURUZKO AZTERKETA (2015-2017)

Ainhoa Novo Arbona
Simón Peña Fernández
Eva Jiménez Martín
Lucía Martínez Odriozola
Leyre Eguskiza Sesumaga

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2020 Vitoria-Gasteiz

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Azterlan hau BEGIRA / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen esparruan egin da (360/2013 DEKRETUA, ekainaren 11koa, 2013ko uztailaren 8ko 129. EHAAn argitaratua). Batzorde hori Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dago.

IZENBURUA:	EAen genero-indarkeria dela-eta hildakoen inguruko trataera informatiboari buruzko azterketa (2015-2017)
EDITOREA:	EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
TALDE TEKNIKOA:	Ainhoa Novo Arbona, Simón Peña Fernández, Eva Jiménez Martín, Lucía Martínez Odriozola, Leyre Eguskiza Sesumaga
MAKETAZIOA ETA DISEINU GRAFIKOA:	Composiciones Rali, S.A.
DATA:	VI-2020
DESKRIPTOREAK:	Komunikazioa, generoa, genero-indarkeria, azterketak

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 7

1. HELBURUAK 11

2. ESPARRU TEORIKOA 15

3. AZTERGAIAK 21

4. METODOLOGIA 35

5. EMAITZAK 43

6. ONDORIOAK 73

7. DEKALOGOAREN BETETZE-MAILA 77

8. GOMENDIOAK 83

BIBLIOGRAFIA 87

ERANSKINAK 93

A

AURKEZPENA

Legegintzaldi honetako berdintasun-politiken ardatz nagusietako bat «balio-aldaketa» izenekoa da, funtsezko tresna baita emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna deslegitimatuko duen gizarte- eta kultura-aldaketa bultzatzeko. Aldaketa hori nekez gertatuko da eragile sozializatzaile nagusien inplikaziorik eta eraldaketarik gabe, eta horien artean daude komunikabideak.

Publizitate eta Komunikazio ez-sexista Erabiltzeko Aholku Batzordea/Begira, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikia, inplikazio eta eraldaketa horretan laguntzeko lanean ari da. Batzorde horri esleitutako egin-kizunen artean daude, besteak beste, «Titulartasun publikoko eta pribatuko komunikabideetan eta publizitate-euskarrietan transmititzen den komunikazio eta publizitate ez-sexistaren azterketa eta jarraipena egitea» eta «egindako azterlanak eta gauzatutako jarduerak zabaltzea». Hala jasotzen da, besteak beste, ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuan.

«EAEn genero-indarkeriaren ondorioz hildako biktimei buruzko informazio-tratamenduaren analisia (2015-2017)», Batzorde honek bultzatua, Euskadiko komunikabideek 2015-2017 aldian genero-indarkeriaren ondorioz hildako biktimei buruz egin duten informazio-tratamenduaren azterketan zentratzen da, profesionalek beren lana nola egin duten jakiten saiatzeko eta kode deontologikoa eta autorregulaziokoa zenbateraino bete duten balioesteko publizitatea eta komunikazioa ez sexistak.

Helburu nagusi hori lortzeko, zenbait adierazle definitu eta ezarri dira, eta Euskadin 2015-2017 aldian gertatutako heriotza eragin duten genero-indarkeriako kasuak identifikatu dira. Ondoren, kasuei buruzko bi azterlan egin dira –kuantitatiboa eta kualitatiboa–, bai eta elkarrizketak egin ere genero-indarkeriari buruzko informazioak egin ohi dituzten profesionalekin, haien errutinak, prestakuntza eta abar ezagutzeko. Horrekin guztiarekin, komunikabideek publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa eta autorregulaziokoa betetzen duten edo ez aztertu da.

Espero dut azterlan hau beste tresna eraginkor bat izatea komunikabideen lanari lagundu ahal izateko gizartean protagonismo arduratsua hartzen, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko agenda publikoa eta proaktiboa zehazterakoan jakitun.

Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet, zuzenean eta zeharka, azterlanean esku hartu eta lagundu duten pertsonei, berdintasunean eta justizian oinarritutako gizartea eraikitzeko ahaleginean ekarpen bat gehiago baita.

Izaskun Landaida Larizgoitia
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

1

HELBURUAK

Aztertzea Euskadiko komunikabideek nolako tratamendua eman dioten 2015-2017 aldian genero-indarkeria dela-eta hildako biktimei buruzko informazioari, profesionalek beren lana nola egiten duten jakitea eta *Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa* noraino betetzen den baloratzea: hara hor ikerlan honen helburu nagusia.

Helburu nagusi hori lortzeko, helburu zehatz hauek ezarri dira:

1. Komunikabideetan agertzen diren genero-indarkeriaren kasuak aztertzeko adierazleak definitzea.
2. 2015-2017 aldian Euskadin heriotza ekarri duten genero-indarkeriaren kasuak identifikatzea.
3. Kasuen azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea:
   a. Azterketa kuantitatiboa, EAEko hedabideen lagin adierazgarri batean (prentsa, irratia eta telebista) ezarritako adierazleak neurtuz.
   b. Kasuei buruz argitaratutako informazioen azterketa kualitatiboa, kasu-azterketaren teknikaren bidez eta aztertutako informazioen idazketaren bitartez.
4. Genero-indarkeriari buruzko informazioa lantzen duten pertsonei elkarrizketa sakonak egitea, besteak beste, haien errutinak eta prestakuntza ezagutzeko.
5. Komunikabide sinatzaileek *Publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa* betetzen duten edo, bete ezean, zenbateraino betetzen ez duten aztertzea.

2

ESPARRU TEORIKOA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN TRATAMENDUAREN BILAKAERA KOMUNIKABIDEETAN

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko tratamenduak, batez ere erailketaren kasuan, bilakaera izan du denboran zehar, pasio-hilketatzat jotzen zenetik genero-indarkeriatzat hartzen hasi zen arte (Rodríguez, 2008). Fagoagak honekin lotzen du gaiak prentsan duen presentziaren bilakaera: berdintasunak herrialdeen kulturan izandako islarekin. Horrela, desberdintasuna zenbat eta handiagoa jendarte batean, orduan eta joera handiagoa emakumeen aurkako indarkeria gai pribatutzat jotzeko, onartuagoa izateko eta prentsan gutxiago agertzeko. Horregatik, berdintasunean inbertsio handiagoa egiteak, arlo sozialean zein instituzionalean, bere eragina du indarkeria mota horren zehaztapen sozial eta estrukturalean, eta hori prentsan gaiari ematen zaion tratamenduan islatzen da (1999).

Premisa horretatik abiatuta, heriotza dakarren genero-indarkeriaren tratamenduak prentsan izan duen bilakaera hiru etapatan antola daiteke (Alberdi eta Matas, 2002; Vallejo, 2005):

A) LEHEN ETAPA: «ALBISTETZAT EZ JOTZEA»

Hirurogeita hamarreko hamarkadara arte, bikotekideek edo bikotekide ohiek emakumeak erail izana ez zen sartzen komunikabideen agendan. Gertaera isolatuak ziren, gutxi-asko normalak, inolako elementu berritzailerik gabekoak, eta, horrenbestez, ez ziren albiste bihurtzeko modukoak.

Lehen etapa horren ezaugarriak hiru elementutan laburbil daitezke: sekzioa, garrantzia eta gertaeren kontakizuna. Lehenik eta behin, albistea gertaeren atalean kokatzen zen, beste gertakari tamalgarri bat balitz bezala. Gertatutakoaren gaineko narrazio poliziakoa eskaintzen zen, testuinguruan kokatu gabe. Bigarrenik, albisteek garrantzi gutxi zuten, eta, horren ondorioz, laburrak ziren eta ez zuten lehentasunik orrialdeetan. Azkenik, gertaerak batez ere pasio-krimen gisa kontatzen ziren, zeinetan biktimarioak pasioaren edo maitasunaren eraginez jokatu baitzuen (Alberdi eta Matas, 2002:251).

Fagoagak azaltzen duenez, gertakari horiek ikusezin bihurtzen dira lehen etapa horretan, hiru elementuren bidez:

1. Tokia; izan ere, gertaerak «*etxe barruan*» izaten dira, eta horrek zaildu egiten du gertatzen denaren edo ezkutatzen denaren berri izatea, hala nola ezkontza-harremanaren barruko tratu txar maskulinoa, zeina heriotza edo ospitaleratze larria zegoenean soilik publizitatzen baitzen, eta, hala ere, gertaeren jatorria ezkutatuta (1999:9).
2. Tratu txarren emaileak ez du publikorik behar, terroristak ez bezala.
3. Narrazioa ez da aldizkakoa, isolatua baizik, eta horrek esplikaezin edo ulergaitz bihurtzen du gertakaria.

B) BIGARREN ETAPA: TEMATIZAZIOA

A mediados de los ochenta se inicia un proceso de cambio en el tratamiento que la prensa hace de la violencia contra las mujeres. Uno de los elementos que mejor explican esta transformación es la interacción de los medios de comunicación con el movimiento feminista –en sus diferentes versiones por países– y con las instituciones femocráticas.

Zenbait ikerketaren arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren sozializazio-prozesu horren erdigunean dago hirurogeita hamarreko hamarkadako mugimendu feminista, hirugarren olatua, zeinean sortu baitziren lelo batzuk, hala nola «pertsonala dena politikoa da», eragin handia izan zuena emakumeen aurkako indarkeria gizarte-arazotzat jotzeko, eta inolaz ere ez etxeko arazotzat edo arazo partikulartzat (Loseke, 1989, Craker, 2005). De Miguelen esanetan, Kate Millet-en *La política sexual*, 1970ekoa, funtsezko lana da emakumeen aurkako indarkeriaren ikuskera berrian. «*Milletek proposatutako interpretazio-esparrutik, emakumeen aurkako indarkeria jada ez da gertaera bat, biktimarioaren eta biktimaren arteko arazo pertsonal bat, eta emakumeen kolektiboaren gaineko egiturazko indarkeria gisa definitzen da*» (De Miguel, 2012).

Elkarte feministak funtsezko elementuak dira prozesu horretan. Komunikabideekin zuzenean jardunez, haien aholkulari bihurtzen dira emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan. Alberdik eta Matasek ere aipatzen dute zer eginkizun betetzen duten emakumeen erakundeek, batez ere bi ekintzaren bitartez: emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistikak argitaratzen dituztenean, eta komunikabideak eta erakunde feministak harremanetan jartzen eta lotzen dituztenean. Etapa honetako elementu esanguratsu gisa, Espainiaren kasuan, nabarmentzekoa da *El País* egunkariaren lehenengo orrialdean argitaratu zutela emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistiken txostenari zegokion agerraldiaren berria, bai eta, haren ondoren, gaiari buruzko iritzi-testuak agertu zirela (2002:252).

Urrats garrantzitsuenetako bat da, zalantzarik gabe, gertaera mota horiek gizarte-arazotzat jotzea, eta ez emakume jakin batzuen arazotzat; izan ere, batzuetan, emakume horien portaera desegokian oinarritzen zen gertaeren definizioa, errudun bihurtuz. Orduan hasten dira artikulu batzuk egiten, gertakariak testuinguru baten barruan jartzen dutenak: indarkeria-kiribilaren prozesua, egiturazko desberdintasunean oinarritua. Artikuluen dimentsioa handitu egiten da, eta, batzuetan, komunikabideen gertakarien edo sozietatearen sekzioetatik kanpo agertzen dira. Pasio-krimenaren edo etxeko indarkeriaren kontzeptua alde batera uzten da, eta haien izaera soziala neurri handiagoan islatzen duten kontzeptu berriak hartzen dira.

Estatu Batuetan, 70eko hamarkadara arte, oraindik ere, emakumeen aurkako indarkeria onartuta zegoen, eremu batzuetan, emakumeak diziplinatzeko, eta hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hasi zen arazo horren aitorpen publikoa egiten, tratu txarrak jasaten zituzten emakumeen mugimenduko kideen eskutik. Tierneyren ikerketaren emaitzei jarraikiz, 1976an aipatu zen lehenengo aldiz «tratu txarrak jasan dituen emakumea» kontzeptua, *The New York Timesen* (Gillespie et al., 2013:222).

Hala ere, lehen etapa hori ez da gainditu herrialde guztietan, ez eta herrialde bereko komunikabide guztietan ere; izan ere, gaur egun, oraindik, halako gertaerak ez dira kasu guztietan fenomeno sozialtzat jotzen edo «emakumeen aurkako indarkeriatzat» edo «etxeko indarkeriatzat» etiketatzen, eta ez dira kontzeptu horiek erabiltzen gertaeren kontakizunean. Italiaren kasuan, adibidez, 2012an, estatuko hiru egunkari nagusiek –*Corriere della Sera, La Repubblica eta La Stampa*– jarraitzen zuten gertaera mota horiek «pasio-krimentzat» jotzen:

> *«Tragedia garaikide bateko protagonistak bezala, hiltzaileak jeloskortasun eta pasio oinazetuaren sentimenduek eraginda jokatzen duten eta bat-batean maite duten emakumearen gorputza eta bizitza menderatzeko muturreko ekintza batean kontrola galtzen duten gizon gisa irudikatzen dira»* (Gius & Lally, 2014:71).

Era berean, Estatu Batuetan, 2000. urtean, oraindik ere, emakumeen aurkako indarkeria-kasu argiak izanik, komunikabideetan «etxeko indarkeria» kontzeptutik abiatuta azaldutakoak ez ziren ezta % 50era ere iristen. 1998an, Washingtonen, kasuen % 74 baino ez zen etxeko

indarkeriatzat hartzen, eta albistearen berri ematen zuten artikuluen % 10ek soilik jotzen zuten arazo sozialtzat; gainerako kasuetan, berriz, gertakari isolatutzat (Bullock & Cubert, 2002). Ildo beretik, Floridan, aztertutako artikuluen % 34k soilik aipatzen zuten «etxeko indarkeria» kontzeptua (Taylor, 2009) eta Ipar Carolinan, % 13,7k soilik (Richards, Gillespie & Smith, 2011). Geroago egindako azterlan baten arabera, kasuak % 25era igo dira ingurune horretan, baina, zehazten duenez, % 12 baino ez dago arazo sozialtzat hartuta (Gillispie et al., 2013).

Australiaren kasuan, hango bi egunkariri buruz –*The Age eta Sun/Herald Sun*– egindako ikerketa batean erakusten denez, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko artikuluen % 83 ez tematikoak dira, egitateetan oinarrituak, eta polizialak, eta artikuluen % 15ek soilik jorratzen dute arazoaren izaera soziala (Morgan & Politoff, 2012:4).

C) HIRUGARREN ETAPA: ERAGIN MEDIATIKO HANDIKO GERTAERAK

Hirugarren etapan, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioak eta tratamenduak jendartearen orrialdeak gainditzen ditu komunikabideetan, eta zenbait ataletan aurki daiteke, eta ez beti gertakari jakin bati lotua. Komunikabideek kontzientzia hartu dute, eta ez da albiste soiltzat hartzen den gaia; aitzitik, beste eduki mota batzuetara zabaltzen da.

Funtsezko aldaketa horrek emakumeen erailketari buruzko berrien estalduraren tamainari eragiten dio bereziki, eta ez hainbeste albiste horiek tratatzeko moduari Horrelako albisteen berri emateak goranzko bilakaera izan du, eta Fagoagaren ikerketan ere ikusten da hori jada; izan ere, haren arabera, hirurogeita hamarreko hamarkadan horrelako gertakarien berri ematen zen, batez beste, astean testu baten bidez, eta laurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, egunean bi testu ziren (Fagoaga, 1994).

1. TAULA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ARTIKULUEN KOPURUAREN BILAKAERA *EL PAÍS* ETA *EL CORREO* EGUNKARIETAN (1976-1998)

	1976-77	1982-83	1988-89	1997-98
El País	50	229	377	745
El Correo	65	106	245	Jaso gabe

Iturria: Fagoagarenetik egokitua (1999:21).

Ildo horretatik, eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak aipatuz, Carterrek, beste emakume ikertzaile batzuen bitartez, azalpena ematen dio horrelako albisteak 1945etik hona ugaritu izanari, bai Erresuma Batuan, bai Estatu Batuetan ere. Egileak inflexio-puntu gisa nabarmentzen du hirurogeita hamarreko hamarkada, eta agerian uzten du laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera prentsa osoak, edozein izanik ere haren kokapen ideologikoa edo irakurleen profila, astero tratatzen duela emakumeen aurkako indarkeria-kasuren bat (Carter, 1998:220).

Bilakaera herrialdeen arabera desberdina den arren, funtsezko gertakari puntual bat aurki daiteke kasu guztietan, zeinak azalpena ematen baitio informazio horiek hedabideetan eragin handia izaterainoko jauzia egin izanari. Alberdik eta Matasek Lorena Bobbit estatubatuarraren kasua aipatzen dute, 1993an gertatua (2002:256). Espainian, egile askoren iritziz, 1997an hasi ziren beste era batez ematen emakumeen kontrako indarkeriaren berri, Ana Orantes

andrearen kasuarekin (Varela, 2003:49, López, 2007:74, Alberdi eta Matas, 2002). Beste kasu garrantzitsu bat Svetlana Orlovarena izan zen, 2007an, telebista-programa batera engainatuta joan zen eta egun batzuetara erail baitzuten: Espainiako gobernuaren eta telebista-kate nagusien arteko akordioa erraztu zuen, genero-indarkeriari buruzko albisteen emisioa hobetzen saiatzeko (Bandrés, 2011).

Laudanok, emakumeen aurkako indarkeria Argentinako prentsan agertzeko moduaren bilakaera aztertzerakoan, Alicia Muñizen erailketa aipatzen du,1988an gertatua, hura izan baitzen kasu horien tratamendua orokortzeko abiarazlea. Hala ere, Espainian ez bezala, kasu jakin baten gehiegizko estaldurak ez zion mesede egin indarkeriaren arazoaren tratamendu sozialari; izan ere, gai horri eskainitako denbora eta espazioa nabarmen handitu arren, tratamendua partikularista egin zitzaion, eta gertakarien kontaketak eta iturriak pasio-krimenaren profiletik hurbil egon ziren (2010:90).

Argentinako kasuan gertatzen den bezala, hedabideen dibertsifikazioak eta albiste horien tratamendua areagotzeak ez dute esan nahi, nahitaez, arazoaren sozializazioan eta tratamenduan aurrera egin denik, nahiz eta Spinettak adierazi duen, *Río Negro* egunkariaren analisian, azken urteetan arazoaren ikuspegi sozialagoa ikusi dela herrialde horretan, heriotza dakarren emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan (Spinetta, 2012:82)

Australiaren kasuan, azken urteetan, bi gertakari nabarmendu dira, emakumeen aurkako indarkeria komunikabideetan lantzeko moduari eragin diotenak. 2013an, bortxaketa bat izan zen, biktimarioaren izenaz –Lazarus– ezaguna prentsan. Haren kontakizunak eta ibilbide judizialak krisialdia eragin dute komunikabideetan, eztabaidak eta zalantzak sortu baitira emakumeen aurkako indarkeriaren berri emateko moduari buruz (Breen et al. 2017:243). Herrialde horretan bertan, Hawleyk eta beste batzuek Rosie Battyren kasuaren eragina jorratu dute. Egin-eginean ere, Rosieren semea aitak erail zuen, 2015ean, eta horrek komunikabideetan kanpaina bat hastera animatu zuen, zera azaltzeko: gertakari hori ez zela gertakari isolatua, baizik eta fenomeno sozial baten barruan sartzen zela. Emakume ekintzaile horrek komunikabideen gainean egindako lana bi alderditan islatu zen: kasu horiek etxeko indarkeria soila ez direla ulertaraztea, eta, bestetik, edonork jasan dezakeen indarkeria dela ulertaraztea; izan ere, haren semeak ez zuen ezer berezirik indarkeria hori jasatera lerratzen zuenik. «Rosie Batty efektuari» buruzko ikerketak erakusten duenez, 20 hilabete geroago, komunikabideek ikuspegi hori jasotzen jarraitzen zuten (Hawley et al., 2017).

3

AZTERGAIAK

IZENA 3.1

Emakumeen aurkako ekintza horien izena da adostasun txikiena duen alderdietako bat. Literatura anglo-saxoian, ikerketa askok «etxeko indarkeria» terminoa erabiltzen dute (Berns, 1999; Bullock, 2007 eta 2008; Hill, 2011; Gillespie, 2013; Jontes & Luther, 2015), eta termino hori gutxi erabiltzen da gaur egungo ikerketetan gaztelaniazko literaturan. Ingelesez nahiz Espainian argitaratutako ikerketetan oso zabalduta dagoen beste kontzeptu bat «emakumeen aurkako indarkeria» da, ikerketa honetan ere erabili dena (Fagoaga, 1994; Meyers, 1997; Alatz, 2006; Zurbano & Libera, 2013; Easted et al., 2015; Simons & Morgan, 2017), eta batzuetan egile anglo-saxoiek «etxeko indarkeriarekin» konbinatzen dutena (Simons). Gaztelaniazko ikerketetan ere asko erabiltzen da «violencia de género» (genero-indarkeria) kontzeptua (López-Díaz, 2007; Menéndez, 2010; Banenors-Goldaraz, 2011). Gutxiago erabiltzen da, baina duela gutxiko ikerketetan aurki daiteke, bereziki ingelesez, «intimate partner feminicide/homicide» izena (Fairbarn et al., 2013 o Gius & Lalli, 2014).

Lehenengo etapan, zalantzarik gabe, ohikoena zen «pasio-krimena» erabiltzea horrelako jarduerak kalifikatzeko. Hala ere, gaur egun kontzeptu hori ia desagertu da Espainiako prentsatik, eta, kontzeptualizazio akademikoarekin gertatzen den bezala, terminologia dibertsifikatu egin da.

> «*Gaur egun, emakumearen aurkako erailketek (…) hedabideetan askotariko terminologiaren bidez zabaltzeko joera dute, baina badirudi gehien erabiltzen den terminoa genero-indarkeria dela, nahiz eta ez den adierazpen bateratua. Gai honi buruz hitz egiteko, gaur egun komunikabideetan erabiltzen diren beste esamolde batzuk dira familia-indarkeria, emakumearen aurkako indarkeria, indarkeria matxista, indarkeria sexista, etxeko indarkeria, genero-krimenak, tratu txarrak, etxeko tratu txarrak, terrorismo matxista, familiako terrorismoa, heriotza dakarren genero-indarkeria edo feminizidioak*» (Rodríguez, 2008:174).

Claudia Vallejoren doktore-tesiak, «*Representación de la violencia contra las mujeres en la prensa española (El País/El Mundo) desde una perspectiva crítica de género*» izenekoak, hausnarketa feministak eta bestelakoak jasotzen ditu fenomenoaren kontzeptualizazioaren balorazioan. Zehazki, «genero-indarkeria» izenaren inguruko gatazka aipatzen du. 1999an zabaldu zen haren erabilpena Espainian, eta genero-indarkeriaren aurkako Europako urtea izendatu zen. Kontzeptu hori, azkenean, legearen izenburuak hartu zuen, 2004an. Bi eremutatik agertu dira termino horren kontrako justifikazioak: letren eremutik eta ikerketa batzuen eremutik, «genero» kontzeptuak feminitatea eta maskulinitatea biltzen dituela eta fenomenoa ez duela behar bezala definitzen adierazten baitute (Vallejo, 2005:30).

Emakunderen Begira Batzordearen *Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako Dekalogoak* esplizituki ezartzen du zer termino erabili behar diren, hala nola «emakumeen aurkako indarkeria», «indarkeria matxista», «gizonek emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria», eta desegokitzat jotzen da kontzeptu hauek erabiltzea: «etxeko indarkeria», «etxeko indarkeria», «familia barruko indarkeria» edo «bikotekideen arteko indarkeria». Halaber, dekalogo horretatik kanpo geratzen dira Rodríguezen ikerketan jaso eta gaiari buruzko ikerketetan erabiltzen diren kontzeptu batzuk, hala nola «etxeko terrorismoa» (Lledó, 2003).

ALBISTEAREN GARRANTZIA: SEKZIOA EDO ATALA ETA LUZAPENA 3.2

Albistea argitaratzen den atalak erakusten du zer garrantzi ematen zaion, bai eta zabalkunderako etiketatzeko modua ere. Emakumeen aurkako indarkeriaren komunikabide-tratamenduaren etapetan ikusi den bezala, albistea argitaratzen den atala da haiek identifikatzeko funtsezko elementuetako bat: lehenengo etapan, gertakarien atalean agertzen da, baztertuta bezala; bigarrenean, gizartearen edo tokiko atalean agertzen da; eta hirugarrenean, informazio horren tratamenduak zenbait atal har ditzake. Lledóren arabera, gaur egun informazio horiek gehiago kokatzen dira gizartearen atalean, eta, neurri txikiagoan, gertakarietan. Hori dela eta, egileak hausnarketa hau proposatzen du: zergatik ez sartu eduki horiek politikaren atalean? (Lledó, 2003:227).

López ez, bestalde, uste du garrantzitsua dela gai hori iritzi-atalean sartzea, «*gizonezkoen jarduera horien arrazoiak eta ondorioak azaltzen dituzten artikuluekin*» (López, 2007:82). Horrela, mota horretako albisteak hobeto ulertu eta tratatuko lirateke. Fagoagak garatutako ikerketetan, sei atal nagusi bereizten dira: lehen orrialdea, iritzia, nazioartekoa, nazionala, tokikoa eta gizartea. Ikerketa horren arabera, emakumeen aurkako tratu txarrak kontatzen dituzten berrien proportzio handiena gizartean edo gertakarietan kokatzen da (1994, 1999).

Bandrés-Goldarazek, Espainiako telebista garrantzitsuenek sinatutako proposamenak betetzeari buruzko berrikuspenean, adierazten du ezen, albisteak berri-emankizunen titularretan agertu arren, haien garapena, gehienetan, azken posizioetara atzeratzen dela, kirolaren aurretik hain zuzen ere, eta horrek debaluazio bat eragiten duela heriotzak kontuan hartzeko moduari dagokionez (Bandrés-Goldaraz, 2011:124). Ikertzaile horrek konparatzen du nola tratatzen diren prentsan ETAren terrorismo-kasuak (azala eta Espainia atala) eta indarkeria matxistarenak, zeinak gizartera eta gertakarietara mugatzen baitira (Bandrés-Goldaraz, 2011).

Kontuan hartu beharreko beste elementu garrantzitsu bat albistearen hedadura da. Informazio horiei buruzko ikerketan (1998), Carterrek zehazten zuen emakumeen aurkako indarkeriaren berri ematen duten albisteek ez dituztela 300 hitz baino gehiago izaten. Emaitza horrek bi alderdiri buruz hausnartzera eraman zuen: errealitate hori hain konplexua izanik, informazio urria ematen da, eta horrek bere ondorioak ditu sentsibilizazioari begira, eta –Dahlgren lanari jarraikiz– albiste bati hain leku gutxi eskaintzeak gertakariak normalizatzea dakar, ezohiko gertakariei soilik eskaintzen baitzaie neurri handiagoa. Laburbilduz, Carterren arabera, informazioaren luzera lotuta dago indarkeria hori gizartean normalizatzearekin (Carter, 1998:225).

Azkenik, atal honetan, zenbait azterlanek testuingurua ere hartu dute kontuan, neurri txikiagoan bada ere; hau da, zer albiste agertzen den erailketari buruzko informazioarekin batera, eta zer publizitate dagoen inguruan. Albiste horiek publizitate jakin baten ondoan jartzeak, zenbait egileren arabera, gertaerak banalizatu ditzake (López-Diaz, 2007:83).

TESTUINGURUA: PASIOAREN ETA MAITASUNAREN NARRAZIOTIK INDARKERIAREN ARAZOAREN SOZIALIZAZIORA

3.3

Komunikabideetan, batzuetan, maitasun-harreman baten amaiera triste gisa kontatu izan da heriotza ekarri duen emakumeen aurkako indarkeria, (Helton et al., 1983; Wood, 2001; Gius & Lalli, 2014). Gertaeren kontakizun erromantiko bat egin da, zenbait jarrera justifikatzeraino ere, hala nola urruntzeko agindu bat hautsi izana San Valentin egunez (López, 2007:89).

Atal honetan, Bullock eta Cubert-ek lau interpretazio-esparru bereizten dituzte: a) poliziala, non gertakariak baino ez diren kontatzen; b) tartean sartutako pertsonak desberdin eta ezohikotzat jotzen dituena, «troublemakertzat»; c) biktimari errua egozten dioten edo biktimarioa errugabetzen duten informazioak; eta, d) biktimarioa normala ez dela, erraz identifikatzeko modukoa dela agertzen duten informazioak (2002:490).

Bestalde, Guillespiek eta beste egile batzuek zazpi esparru bereizten dituzte, eta horietan kokatzen dira heriotza eragin duen emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteak: a) gertaera arrunta; b) gertaera isolatua; c) sistema judizialaren errua; d) biktimari errua leporatzea; e) biktimarioak kontrola galtzea; f) bikotearen bizi-krisia; eta, g) arazo soziala. Egile horiek, halaber, zazpigarren esparru horretan kokatzen diren albistearen ezaugarriak identifikatzen dituzte:

> *«Artikulu horiek bikotearen arteko indarkeriaren historia deskribatzen zuten, etxeko indarkeriaren defendatzaileak aipatzen zituzten iturri gisa, etxeko indarkeriaren beste biktima batzuei aholkuak ematen zizkieten eta/edo defendatzaileen eta tokiko babeslekuen harremanetarako informazioa jasotzen zuten. Artikulu horietan, biktimen esperientziak eta etxeko indarkeriaren konplexutasuna zehatz-mehatz deskribatzeko ahaleginik handiena egin zen. Artikulu horietan, lagunen, senideen eta/edo erregistro judizialen informazioak biktima jakin batzuek luzaroan jasandako abusua erakusten zuen; biktimen defendatzaileek, berriz, etxeko indarkeriaren izaera deskribatzen zuten»* (Gillespie et al., 2013:238).

Italiako komunikabideei buruzko ikerketan, Gius eta Lallik bi esparru bakarrik aipatzen dituzte: kontrola galtzea eta bikotearen bizi-krisia edo pasio-krimena (Gius & Lalli, 2014). Erasoari, kausalitateari buruzko azalpena: askotan, kontraesana dago izenburuan kausa edo arrazoitzat ulertzen edo azaltzen denaren eta albistea garatzen denean kausari buruz adierazten denaren artean (Lledó, 1999 y 2003).

Egiturazko indarkeria testuinguruan jartzea eta gizarte-arazo baten esparruan argi eta garbi kokatzea funtsezkoa da tratamendu egokia emateko. Vallejok (2005) jasotzen duen bezala, erailketa matxistaren tratamenduak testuinguru berezia du prentsan, kontuan hartu beharrekoa: alde batetik, prentsan gutxiegi agertzen dira indarkeria matxistaren beste modu batzuk (psikikoa edo fisiko ez hain larria), badagoelako joera bat ezohiko gertaeren berri baino ez emateko (Meyers, 1997); bestetik, emakumeek heriotza saihestea lortzen dutelako berriak falta direlako (Alberdi eta Matas, 2002). Bi gabezia horien ondorioz, prentsan hilketa matxista baten berri ematean, beharrezkoa da fenomenoa testuinguruan kokatzea, hau da, indarkeria horren aurrekariak kontatzea, inoiz ez baita isolatua.

Ildo horretan, badirudi bidea luzea dela oraindik. 1997tik 1998ra bitarte, El País eta ABC egunkarietan tratu txarrei buruz agertzen ziren kontakizunen % 26,2 eta % 51,8, hurrenez hurren, testuingurutik kanpo zeuden. Fagoagaren esanetan, «*omisioaren erretorikaren indarkeria*» da, zeinaren arabera esan gabe geratzen dena, batzuetan, testuan adierazitakoa baino adierazgarriagoa izaten den (Fagoaga, 1999:38). Antzeko zerbait ondoriozta daiteke Zurbanok eta Liberak egindako analisitik, lau telebista-katek (Telecinco, Cuatro, TVE eta Canal Sur) emandako informazioa aztertu baitzuten, Barakaldon emakume baten erailketaren karietara. Indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko zerbitzuen telefonoa sartu arren, «*informazio mota horretan testuinguru-falta nagusitzen da, eta gehiegi erabiltzen dira odol-irudiak eta aditu ez direnen lekukotzak, gertakariei buruzko esperientzia partikularrak besterik eskaintzen ez dituztenenak*» (2013:133).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak zenbait alderdi aipatzen ditu gertakarien kontaketari buruz, eta 26.1 artikuluak honako hau ezartzen du: «*gizarte-komunikabideek (…) ezin dute zabaldu emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen edukirik*». Ildo beretik, Begira Batzordearen *Publizitate eta Komunikazio ez-sexistarako Kode Deontologikoak* eta autoerregulaziokoak honako hau jasotzen du:

> «*Beharrezkoa da nabarmentzea zein den emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria: emakumeek, emakume izate hutsagatik, gizonen aldean pairatzen dituzten egiturazko desberdintasunak. (…). Horregatik, eta interes orokorrari begira, egiturazko desberdintasun hori nabarmenduz egin behar dugu albistearen diskurtso osoa, eta inoiz ez gertaera, kasu edo gertakari isolatu bat balitz bezala*».

BIKTIMA 3.4

Biktima da, zalantzarik gabe, komunikabideetan emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua aztertzeko alderdi garrantzitsuenetako bat. Alderdi asko hartu behar dira kontuan; alde batetik, hau galdetu behar da: biktimaren jatorriak, etniak edo gizarte-klaseak eraginik ote duen albiste horiek emateko moduan. Bestetik, gogoeta egin behar da biktimaren zer profil ematen duten komunikabideek, eta, azkenik, ea oraindik indarrean dauden biktimari errua egozten dioten albiste-narrazioak edo kontaketak.

Lehenengo gaiari dagokionez, hau da, biktimaren jatorriak, etniak edo klase sozialak emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan eragiten duen ala ez, zenbait ikerketek diote tratamendu desberdina eman zaiela. Horrela, Meyersek, laurogeita hamarreko hamarkadako Estatu Batuei dagokienez, adierazten zuen erailketa zekarren emakumeen aurkako indarkeriaren kasuak egunerokotzat hartzen zirela, eta prentsak ez ziela behar adinako garrantzirik ematen, non eta biktima zuria eta klase ertainekoa ez zen (1997:98).

Ildo beretik, Gilchristek hau aztertu zuen: Kanadako prentsak tratamendu desberdina ematen ziela emakume aborigenei eta zuriei, genero-indarkeria zela eta. Ikerketa, zehazki, desagertutako eta eraildako emakumeei buruzkoa da. Informazio-estaldura, argitaratutako artikuluen kopurua eta horietako bakoitzaren batez besteko hitz-kopurua aztertuta, ondorioztatzen du ezen emakume zuriei buruzko artikuluek neurri handiagoan hartzen dituztela komunikabideen azalak edo atal nagusiak. Azkenik, emakume zuriei buruzko titularrak, adjektiboak eta informazioa gehiago dira, hurbilagoak gainera, emakume aborigenei buruz eskaintzen direnak baino (Gilchrist, 2010).

Gius eta Lallyk ere aldeak aurkitu dituzte albistearen tratamenduan, Italiaren kasuan. Hala, albiste gehienak biktimarioak kontrola galtzearen edo pasio-hilketaren interpretazio-esparruetan kokatzen badira ere, esparrua aldatu egiten da biktima eta biktimarioa immigranteak badira. Halakoetan bakarrik hitz egiten da patriarkatuari eta gizonezkoen nagusitasunari buruz.

> *«Ondorioz, narratiba hau erabiltzeak gure eta haien arteko dikotomia baten eraikuntza indartzen du, zeina instrumentaltzat jo baitaiteke immigranteak "gure gizarte liberaletik" kanpo uzteko, eta aldi berean, Italiako kulturatik urruntzen ditu gizonezkoen menderatzearen kontuak»* (2014:70).

Alberdik eta Matasek, bestalde, klase apalen kriminalizazioaz hitz egiten dute (2002:258), eta ildo horretan sar daiteke Laudano ere, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduaren bigarren etapa aipatzen duenean, Argentinari dagokionez; izan ere, gogorarazi duenez, gai horri buruzko *talk-showak* herri xehea hartzen zuten ardatz (2010:95).

Biktimari buruz planteatzen den bigarren kontua da nola deskribatzen den komunikabideetan eta zer ekintza egozten zaizkion. Fokalizazio horrek laguntzen du pentsatzen indarkeria emakume batzuen arazoa dela, eta ez gizarte osoarena (López-Díez, 2002).

Emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduaren beste alderdi azpimarragarri bat biktimari eta biktimarioari eskainitako espazioaren arteko kontrastea da, bereziki garrantzitsua baita irudien kasuan. Sánchezek eta beste batzuek egindako azterlanaren arabera, emakumeak irudien % 23an agertzen dira, eta biktimarioak, berriz, kasuen % 3an (Sánchez et al., 2003).

Biktimaren anonimotasunari eta duintasunari buruz, Alberdik eta Matasek hausnarketa egin zuten 2002an, egoki izango litzatekeela biktimari buruzko datuak ematea, tratamendu duina bermatuta; izan ere, iritzi publikoa biktimarekin identifikatzea erraztuko luke horrek. Aldi berean, ohartarazi zuten elementu hori luzaroan erabiltzeak indarkeria normalizatzea ekarriko lukeela (2002:258). Ildo horretan, ondorioa argia da Anastasiorentzat eta Kostarentzat: «*Delitu pertsonalenen biktimen deskribapenek biktimarekiko enpatia handiagoa sortzen dute, eta errua biktimari egozteko joera murrizten dute*» (2004:540).

Hala ere, legeria biktimaren tratamendu duina eta, aldi berean, anonimotasuna bermatzera bideratu da. Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legeak II. Kapituluan arautzen du, publizitatearen eta komunikabideen eremuari buruzkoa bera, biktimaren tratamendua, baina ez du inolako erregulaziorik ezartzen biktimarioari dagokionez. Zehazki, 14. artikuluan hau ezartzen da: «*emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioak zabaltzeak bermatuko du, dagokion objektibotasunarekin, indarkeriaren biktima diren emakumeen eta haien seme-alaben giza eskubideen, askatasunaren eta duintasunaren defentsa. Bereziki, arreta berezia jarriko da informazioen tratamendu grafikoan*» Biktimaren Estatutuaren 4/2015 Legea biktimari buruzko informazioa babesteaz harago doa, eta anonimotasunerako eskubidea arautzen du.

Ildo horretan, oso interesgarria eta erabilgarria da azterlan hau: *Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea*, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearena: argudio juridikoak ematen dira, eraildako emakumearen senitartekoak zuzenean edo zeharka ez identifikatzea justifikatzen dutenak; besteak beste, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko 4/2015 Legean jasotakoak (2016ko urriaren 28an sartu zen indarrean). Lege horretan, biktimen nortasuna bereziki babesten da, eta biktimatzat hartzen dira eraildako emakumeen kargura dauden adingabeak.

Biktimaren kasuan, aztertu beharreko beste elementu bat hura deskribatzeko modua da. Altés eta beste batzuen arabera, batzuetan beharrezkoak ez diren adjektiboak erabiltzen dira

estereotipoak betikotzeko: «*Aztertu beharko litzateke ea emakumeentzako kalifikatzaileak erabiltzen direnean artikulua azaltzeko datu garrantzitsuren bat gehitzen den*». Osterantzean, egileek dioten bezala, jardunbide txarra izango litzateke (Bach, Altés, Gallego, Plujà & Puig, 2000:52).

Kontuan hartu beharreko beste kontu bat da biktimaren ahultasuna, bereziki, biktimarioaren trebetasunei edo baldintza fisikoei buruz ematen duen informazioarekin kontraesanean. Biktimaren pasibotasuna erakustearen ondorioz, ez da informaziorik ematen haren erreakzioaz, ihes egiteko ahaleginez, edo gertakarien kontaketan subjektu ekintzaile gisa duen indar- edo defentsa-jarreraz. Bestela esanda, emakumeen ezaugarriei eta haien ekintzei buruzkoa izango litzateke (Lledó, 1999 eta 2003). Ildo beretik, Alberdik eta Matasek hausnartu dute ez dagoela albisterik ekintzak emakumeen bizitza salbatu duen egoerak islatzen duenik:

> «*Era berean, ez da ohikoa beren egoeratik ateratzea lortu duten emakumeen adibide positiboak aipatzea, ezta biktimak babesten dituzten epaiei buruzko informazioa ematea ere. Zoritxarrez, «albiste izan daitekeena» negatiboa izan ohi da, eta komunikabideek ez diete adibide zoriontsu eta itxaropentsuak ematen oraindik erreakzionatzera ausartu ez diren emakumeei*» (Alberdi & Matas, 2002:255-256).

Horri dagokionez, Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako Dekalogoak jasotzen du garrantzitsua dela «*halako informazioen berri ematea; izan ere, informazio horrek laguntzen du, batetik, kasu zehatz bakoitza emakumeen aurkako indarkeria kontzeptuaren barruan kokatzen, eta, bestetik, indarkeria jasaten duten emakumeek eta haien ingurukoek agertzen dituzten jarrera desberdinen berri ematen». Horregatik, erasotzailea salatzen dutenak indarkeria jasaten duten emakumeak izan ohi direla erakutsiz gero, emakumeak beren bizitzaren eragile gisa ikusaraziko ditugu, indarkeria-ziklotik ateratzeko behar den aldaketaren eragile gisa*».

Hirugarren gaia biktimaren erantzukizunari buruzkoa da. Berns-ek, 1970etik 1997ra bitartean emakumeen aldizkariak aztertu ondoren, ondorioztatu zuen jarraitzen zela emakumeei pairatzen duten indarkeriaren errua egozten: *«Gehienetan, aldizkari horiek biktimen esperientziak diskurtso baten barruan kokatzen dituzte, eta diskurtso horrek ez du kontuan hartzen gehiegikerien egilearen zeregina, baizik eta gizartearena ere»* (Berns, 1999:85).

Egile horren arabera, lau interpretazio-esparru daude, gertakarien gaineko erruduntasuna edo erantzukizuna non kokatzen den kontuan hartuta. Lehenik eta behin, aztertutako unitate gehienetan, erantzukizun indibiduala emakumeei egozten zaie. Artikulu horietan, nagusiki, lehen edo hirugarren pertsonan kontatzen dira indarkeria jasaten duen edo egoera horretatik ateratzea lortu duen emakume baten bizipenak. Horietan guztietan ikusten da biktimaren esku dagoela indarkeria jasateari uztea, eta, beraz, haren errua da indarkeria jasaten jarraitzen badu. Horrela, arazoaren konponbideak, lehenik eta behin, indibidualak dira. Bigarrenik, bost kasutatik batean, artikuluek erakundeei egozten diete erantzukizuna, eta, horrenbestez, legezko neurriak eta a posteriori egin beharreko jarduerak dira konponbidea. Hirugarrenik, erantzukizun kulturala edo egiturazkoa aipatzen da, hezkuntza- edo sentsibilizazio-arloko prebentzio-irtenbideak azpimarratzen dituena. Egileak aztertutako 56 artikuluetatik, zortzi baino ezin dira sartu interpretazio-esparru horretan. Eta, azkenik, interpretazio-esparru integratua dago, hau da, erantzukizun bat baino gehiago jasotzen duten artikuluak. Kasu horiek urriak dira, eta denbora-tarte jakin batean daude, 60ko hamarkadaren amaieratik 80ko hamarkadaren hasierara. Berns-ek uste du hori horrela dela garai horretan emakumeen aurkako indarkeriaren arazoa sozializatu zelako; komunikabideek arreta handiagoa eman zioten, fenomeno berria izango balitz bezala. Horrela, kazetaritzak fenomeno konplexutzat aztertzen ditu gertakariak, eta, beraz, faktore askoko fenomeno gisa. Kasu batzuk igarota, ordea, desagertu egiten da nobedadea.

Biktimei errua leporatzea, bizia arriskuan jartzen dutenei alegia, gertaera garrantzitsua da, baldin eta biktimarioa pertsona arrarotzat deskribatzen bada, zeinaren ibilbidea halakoa den non ezin baita ulertu emakumea nola erlazionatu den harekin. Horren ondorioz, biktimari leporatzen zaio erantzukizuna, pertsona hori aukeratzeagatik. Ikuspegi hori, batez ere albisteak interpretatzeko esparru batzuetan gertatzen da, zeinetan biktimarioa tipo arrarotzat jotzen den (Bullock eta Cubert, 2002). Jiwani-k «*arrisku handiko emakumeak*» aipatzen ditu, indarkeria pairatzen baitute bizia arriskuan jartzen dutelako, prostituzioan aritzen diren edo kalean bizi diren emakumeei erreferentzia eginez, edo muturreko pobreziako egoera batean dauden emakumeei erreferentzia eginez, haientzat gertaera horiek «*arruntak*» edo «*normalak*» baitira (Jiwani, 2008). Hori bera deskribatzen dute Breen eta beste batzuek bortxaketa bati buruzko ikerketan:

> *«Beren gaztetasunaren eta esperientziarik ezaren deskribatzaile komun horiek deliturako nolabaiteko izugarrikeria zuten diskurtsiboki, adineko emakume bat edo sexu-esperientzia duen emakume bat biktima adingabea izango zela inplikatuta. Beste "bortxaketa mota" batzuetatik "desberdin" gisa markatzeko lan egiten dute»* (2017:248).

BIKTIMARIOA 3.5

Heriotza dakarren emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduari buruzko ikerketek, komunikabideek biktimarioari ematen dioten tratamenduaren analisia jorratzen dutenean, bi gai hauek aipatu ohi dituzte: hiltzailea biktima baino gutxiago agertzen da gertaeren kontaketan, eta hiltzailearen jarduera minimizatzen, azaltzen edo are justifikatzen duen gertakariren bat deskribatu ohi da.

Albistearen kontaketan biktimarioa gutxiago aipatzea edo ez aipatzeari dagokionez, Bandrések adierazten du oso garrantzitsua dela biktimarioaren irudiak sartzea, polizia hura atxilotzen ari dela, edo hari eskuburdinak jartzen ari dela, edo poliziaren fitxan agertzen, betiere errugabetasun-presuntzioa zainduz, baina haien bitartez atxilotutakoaren hiltzaile-irudia finkatzen saiatuz (Bandrés, 2011:130-131).

Biktimarioa aipatzeko kontzeptuak funtsezkoak dira; izan ere, kasu batzuetan, albistea idazteko moduak berak harekiko enpatia adierazten du. Adibide gisa «*haren bikotekide sentimentala*» bezalako adierazpenen adibideak aipatzen ditu (2007:87).

Gainera, ekintzak azaltzeko, testuinguruan kokatzeko eta, baita justifikatzeko ere, batzuetan zenbait gai aipatzen dira, hala nola drogak, alkohola edo langabezia (López, 2007:88). Zentzu horretan, Alberdik eta Matasek trauma bat ere aipatzen dute, «*iraganeko sufrimenduen deskribapena*», biktimarioen portaeraren izua arintzeko erabiltzen dena eta haiek gaixotzat hartzen dituena (…) (2002:256).

Washingtongo prentsak 1998an zuen egoerari buruz egindako azterlanean, Bullock-ek eta Cubertek ondorioztatzen dute artikuluen % 47,8k gutxienez egitateak gauzatzeko motibazio edo aitzakia bat iradokitzen dutela, biktimarioa errugabetzeko modukotzat hartzekoak (2002:483-486). Proportzio hori handiagoa da Fagoagaren azterlanean (1997 eta 1998); izan ere, albisteen % 20an soilik ez da agertzen biktimarioaren errugabetze-inguruabarrik, nahiz eta jeloskortasuna % 11 baino ez den, alkoholarekin gertatzen den bezala.

Narrazioak gertakari isolatutzat hartzean, bizilagunen gisako informazio-iturriak erabiltzea dakarrena, besteak beste, gertakari horretan sakontzen du, biktimarioaren portaera puntua-

larekiko harridura azpimarratuz, bizilagunek hari buruz zuten irudiarekin zerikusirik ez duena. Kasu horietan, desordena puntual gisa azaltzen eta interpretatzen dira (Bullock eta Cubert, 2002).

Biktimarioari dagokionez, errugabetasun-presuntzioak oinarrizko eskubide gisa duen garrantzia azpimarratzeaz gain, Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako Dekalogoak gomendio hau ezartzen du:

> *«Biktimarioaren jokabidearen berri emateak, jokabide hori testuinguruan kokatuz, gizon horiek nola jokatzen duten jakiten lagunduko du. Horrelako informazioek beste emakume batzuk eta haien ingurukoak ohartarazteko balio dezakete, emakume horiek jakin dezaten ea indarkeria jasaten ari diren eta nola jokatzen duen biktimarioak. Horrez gainera, gizon horien portaera bortitza salbuesten edo arintzen duten mito hutsalgarri eta zuritzaileak alde batera uzten erraztuko du horrek. Horren haritik, funtsezkoa da biktimarioaren edo haren ingurukoen kontakizuna ez jartzea indarkeria jasaten duen emakumearen kontakizunaren gainetik. Biktmarioaren adierazpen errugabetzaileak ere saihestu egingo dira».*

ITURRIAK ETA INFORMATZAILEAK 3.6

Iturriak eta iturriek gertakarien kontaketan eta gertakarien interpretazio-esparruan izan duten eragina: horra emakumeen aurkako indarkeriari buruz komunikabideek emandako informazioaren gaineko ikerketa gehienen xedeetako bat. Hala ere, laginaren dimentsioagatik eta azterlanaren xedearen espezifikotasunagatik gehien nabarmentzen den ikerketetako bat Bullockena da, Utahko estatuko komunikabideei buruzkoa. Bertan, eraildako emakumeen 83 kasu eta 34 erailketa-saiakera aztertu dira, 22 hedabideko 776 piezatan. Ikerketa horren helburua da erabilitako informazio-iturri nagusiak zein diren jakitea, eta bost esparrutan sailkatzen dira: a) informatzailerik gabe; b) iturri ofizialak (polizia, epaitegia, abokatuak, agintariak oro har); c) iturri pertsonalak (biktimarioa, biktima, auzokideak, lagunak, erlijio-aholkularia, lankideak); d) adituak (elkarteen arloko adituak, epaileak, medikuntzako adituak, eta abar), eta, e) askotarikoak (iturri anonimoak, albistea entzun dioten oinezkoak, aurreko kategorietan sartzen ez den beste edozein). Azterketa horretan, Bullockek ondorioztatu zuen ezen, nahiz eta Utahko hedabideek gertatutakoaren berri ugari eman, artikulu kopuruagatik eta haien luzeragatik, albiste gehienek ez dutela informatzailerik edo iturri ofizialek bakarrik ematen dietela informazioa. Artikulu luzeenen kasuan ere (14 paragrafo baino gehiago), ez da aurkitzen emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegi sozialagoa bultzatzen duten adituen iritzirik edo ikuspegirik (Bullock, 2008).

Hedabideek albisteen berri emateko erabiltzen dituzten informazio-iturrietan oinarritutako beste adibide bat, batez ere informazio-iturri bat edo beste bat erabiltzearen ondorioetan zentratua, Simon-ek eta Morganek egindakoa da, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko erreportajeen edo programen arduradunei elkarrizketa sakonak eginez burutu baitzuten.

Ikerketa horretarako, lau iturri nagusi bereizten dira emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan: a) iturri ofizialak, hau da, polizialak edo eremu judizialeko langileak; b) auzokoak edo ingurunea; c) familia; eta, d) adituak.

Iturri ofizialak, hala nola polizia edo epaitegietako langileak, dira komunikabideek gehien erabiltzen dituzten baliabideak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteak emateko (Fagoaga, 1994 eta 1999; Bullock & Cubert, 2002; Bullock, 2008; Morgan & Politoff, 2012).

Meyerrek adierazten du albistearen arduradunek iturri horretan ikusten dutela albistea kontatzeko bide neutral eta objektiboa (Meyer, 1997). Hala ere, egile horrek eta ondorengo beste ikerketa batzuek (Bullock & Cubert, 2002, Gillespie et al., 2013) iturri horiek erabiltzearen ondorioetako batzuk nabarmentzen dituzte.

Iturri ofizialak erabiltzeari dagokionez, Meyerrek zalantzan jartzen du haien neutraltasuna, uste baitu polizia-ikuspegiaren jarrera, baliorik gabe, engainagarria dela; izan ere, polizia-ikerketen ikuspegitik, krimena biktimarioaren eta biktimaren arteko interakzio batean oinarritzen da, zeina, nolabait ere, gertakariak azalpenean tartekatzen baita (Meyers, 1997:94), eta horrek gizarte-arazoaren ikuspegi soziala eta globala baztertzen du. Ildo beretik, Bullock-ek, Utah estatuko komunikabideei buruz egindako ikerketari jarraikiz, uste du iturri ofizialen erabilerak (polizia, epaitegiak edo epailetzako pertsonak) narrazioari buruzko uste objektiboa ematen duela, nahiz eta jarrera patriarkala eta ez-feminista izan ohi duten (2007:47).

Iturri ofizialak erabiltzearen bigarren ondorioa da informazioetan erabiltzen den kontzeptualizazioa eta hizkuntza. Informazio-iturri nagusiak direnean, albistea mimetizatu egiten da indarrean dagoen legeria jatorri duen hizkuntza batekin. Legeria zahar bat egoteak eta iturri ofizialak albistearen iturri nagusitzat hartzeak talka egin dezake arazoaren pertzepzio sozialarekin (Gillespie et al., 2013:225), eta, horren ondorioz, albistearen hizkuntza kontraesanean egon daiteke herritar gehienek gertaerei buruz duten pertzepzioarekin. Horrela, hizkuntza judiziala zuzenean transmititzen da, gertaera isolatuen, arazo pribatuen eta albistearen salbuespenezko kasuen antzinako kategorizazioa islatzen duena, ikuspegi horrekin kritikoa den gizarte batean. Horrela, bada, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko lege espezifiko bat egoteak edo ez egoteak edo zigor-kodea fenomenoari buruzko ikuskerari egokitzeak, hau da, sozializaziora edo egiturazko izaerara, zuzeneko eragina izango du komunikabideek egitateak kategorizatzeko orduan.

Espainiaren kasuan, eta, zehazki, Euskadiren kasuan, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduan egindako lege-erreformari esker, iturri nagusitzat indarkeria ofiziala hartzen denean, egitateen eta zigorren kategorizazioa arazoaren kontzepzio berrira egokitzeaz gain, hura komunikabideetan islatzen da.

Albistea eraikitzeko iturri ofizialak erabiltzean kontuan hartu beharreko azken ondorioa garatzen den narrazio mota da. Polizia edo esparru juridikoa informazio-iturri gisa hartzen den kasuetan, gertakarien kontaketak gertaeretarako polizia-hurbilketa errazten du. Nahiz eta gertakariak salbuespentzat kontatu ez, edo haien pasiozkotasuna azpimarratu ez, egia da horrelako kontaketek ez dutela laguntzen arazoa testuinguruan kokatzen, ez eta haren izaera soziala agerian jartzen ere. Bullock eta Cubertek polizia-esparru gisa aztertzen dituzte narrazio horiek:

> *«Polizia-esparrua "egitateak bakarrik" ikuspegiari atxiki zitzaion. Hilketa nola garatzen zen deskribatzen zuen (nor, zer, non, noiz eta nola) egilearen eta biktimaren arteko harremanaren izaerari buruz espekulatu gabe, eta hilketa edo haren gerra-ahalegina inplikatuen arteko edo, oro har, gizartearen arteko arazo batetik pasatzen zela adierazi gabe (Zergatik). Polizia-esparruak ez zuen adierazten etxeko indarkeria esku-hartzea eskatzen zuen familia-egoera bat zela, baizik eta kontrolpean zegoen egoera juridiko bat zela. Ondorioz, etxeko indarkeriaren halabeharra ez zegoen gertakarien amaiera gisa, gertakari isolatu gisa baizik, eta poliziak erantzun egin zion. Bi edo hiru paragrafotako istorioak, polizia eta medikuak iturri gisa baino erabiltzen ez zituztenak (...)»* (2002:490).

Australiako esperientzia oso bestelakoa da, eta poliziaren prestakuntza azpimarratzen du. Hala, aldaketak izan dira poliziaren barruan, emakumeen aurkako indarkeria gizarte-arazo gisa

tratatzeari dagokionez, eta horrek eragina izan du, neurri batean, komunikabideek fenomenoari heltzeko moduan (Simons eta Morgan, 2017).

Auzokoen adierazpenak dira komunikabide askok gertakariei buruzko informazioa lortzeko erabiltzen duten beste iturri garrantzitsu bat, bai eta albiste askoren oinarri ere. Auzokoak ezagutza-iturri fidagarritzat hartzen dira biktimarekiko eta biktimarioarekiko duten hurbiltasunagatik, baina, hala ere, kasu gehienetan iturri desinformatua da (López-Díez, 2002).. Testigantza horiek errazten duten gertakari-kontakizunak arrarotasuna eta salbuespena azpimarratzen ditu, normaltasun-testuinguru baten barruko gertakari isolatuak (Taylor, 2009). Azken batean, informazio-iturri horiek mesede egiten diete lehen etapa deitu dugun horretako albisteei, pasioa eta egintza isolatuak azpimarratzen baitituzte, eta biktimarioa errugabetu, haren krimena «*une txar batean*» oinarrituta.

Beste informazio-iturri garrantzitsu bat **adituen kontsulta** da. Iturri horiek erabiltzen dira gutxien, nahiz eta haien bitartez gertaeren ikuspegi soziala ziurtatzeko aukera handiagoa dagoen (Bullock & Cubert, 2002; Bullock, 2008; Morgan & Politoff, 2012; Simons & Morgan, 2015). Australian emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteak argitaratu eta idatzi dituztenei egindako elkarrizketa sakonetan, elkarrizketatutako pertsonek adierazi dute denbora funtsezko gaia dela horrelako iturririk ez erabiltzea azaltzeko. Erakunde espezializatuek denbora asko behar dute gaiari buruzko jarrera hartzeko, eta horrek frustrazioa eragiten du kazetariengan. Gainera, idazleek adituekin eta akademikoekin harremanetan jartzeko ahalegina egin behar dute, eta horrek idazketa-prozesua zailtzen du.

> *«Komunikabideetako ordezkariekin egin genituen elkarrizketa guztietan faktore nabarmena izan zen sektorearen eta adituen ordezkari gisa erabili zirenean, kasu guztietan txosten horiek iritsi zitzaizkielako izan zela. Sektoreak eta aditu akademikoek paper erreaktiboa izan zuten, batzuetan (baina ez beti) kazetaritza-eskaerei erantzunez. Gure elkarrizketa guztietan ez zen sektoreko ordezkari bat edo aditu akademiko bat kazetari batekin modu proaktiboan harremanetan jarri istorio bat kontatzeko»* (Simons eta Morgan, 2017:9).

Simons eta Morgan kexu dira eragile horien eta komunikabideen artean harreman zuzenagorik ez dagoelako; izan ere, bertan lan egiten ez bada, emakumeen aurkako indarkeria gizarte-arazotzat hartzea epe laburrerako ikuspegia baino ez da izango (2017:12).

Carterrek bere ikerketan jasotzen duenez, zer iturri erabiltzen den, emakumezkoak edo gizonezkoak izan ohi dira. Adituak direnean –poliziak, epaileak, eta abar–, gehienetan gizonezkoak izaten dira; aldiz emakumezkoak izan ohi dira auzokide, lagun min edo lankideak, bai biktimarenak, bai biktimarioarenak (Carter, 1998:228). Polizia iturri nagusi eta, batzuetan, iturri bakar erabiltzeak, eta polizia gehienak gizonak izateak desberdintasunari eusten laguntzen du, Fairbain eta Dawsonen arabera (2013:173).

2. TAULA. LABURPENA, ITURRIAK, GENEROA ETA NARRAZIOAN DUTEN ERAGINA

ITURRIA	NARRAZIOA	INFORMATZAILEAREN GENEROA
Poliziala/Judiziala	Polizia-esparrukoa	Gizonezkoak
Auzokideak	Pasiozkoa/Salbuespenezkoa	Emakumezkoak
Familia eta lagunak	Egiturazkoa/Testuingurua	Emakumezkoak
Adituak	Gizarte-arazoa	Gizonezkoak

Iturria: Geuk egina.

Informazio-iturriei dagokienez, Begira batzordearen Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako Dekalogoak ezartzen du iturri informatzaile adituak erabili behar direla, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ezagutza dutenak:

> «*Funtsezkoa da informazio-iturri adituengana jotzea, bai albiste izan daitekeen gertaera zehatzaren berri ahalik eta egiatasun handienaz jakiteko, bai jakinarazten den gertaerari buruzko datu zehatzak ulertarazten laguntzeko, azalpen argigarrien bitartez. Haatik, dekalogo honetan ezarritakoaren ildotik eta hedabideek adierazi duten ezintasuna dela-eta (datuak eskuratzeko ezintasuna, informazio-mota hauek ahalik eta denbora laburrenean prestatzeko), ulergarria da zenbaitetan informazio-iturri ez-adituengana jotzea (familia, bizilagun eta lekukoengana). Halakoetan, lekukotza horiek zuhurtasunez eta profesionaltasunez erabiliko dira beti, emakumea berriz ez biktimizatzeko eta erasotzailearen jokabidea ez zuritzeko*».

4

METODOLOGIA

Emakumeen aurkako indarkeriari (batez ere heriotza dakarrenari) prentsan emandako trataeraren azterketari dagokionez, lan aitzindaria dugu Tierneyk 1982an Estatu Batuetan egindakoa: «*The battered women movement and the creation of the wife beating problem*». *The New York Times* aldizkariko zortzi urtetako prentsa-artikuluak aztertu zituen, 1970etik 1978ra (Gillespie et al., 2013:223). Horrelako lanetatik abiatuta, komunikabideetako tratamenduari buruzko ikerketa zenbait tradizio analitikoren arabera egin da, Gillek hiru kategoriatan antolatuta: edukiaren analisia, analisi semiotikoa eta analisi kritikoa (2007).

Edukiaren analisia analisi kuantitatibo gisa erabiltzen da, eta horren bidez kontatzen da zenbat aldiz agertzen diren emakumeak eta gizonak prentsan, zein ekintza/rol/ataletan agertzen diren maizenik, zein adjektibo eta atributu erabiltzen diren gehien erreferentzia egiteko. Gillek aipatzen duen bezala, komunikabideen edukia genero-ikuspegitik aztertzeko proiektu garrantzitsuenetako bat *Global Media Monitoring Project* izan da (GMMP, aurrerantzean). Proiektu horren azken txostenean (2015), 114 herrialde sartu dira, 1995ean lehena egin zenean baino 43 gehiago.

Analisi semiotikoa erabiltzen diren hitzen adierazlearen eta adieraziaren arteko erlazioaren alderdi kulturala behatzean oinarritzen da. Haren helburua da gertaeren narrazioan erabiltzen diren kontzeptuen edo irudien karga kulturala baloratzea, artikuluaren komunikazio indiziala, ikonikoa eta sinbolikoa neurtzea, eta narrazioaren esanahi denotatiboa eta konnotatiboa baloratzea. Mota horretako ikerketek kasu eta azterketa-unitate kopuru mugatua dakarte berekin, eta beste ikerketa batzuetan eragin nabarmena izan badezakete ere, gutxi dira emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduaren azterketan.

Azterketa kritikoa honetarako ere erabili da, metodo gisa: komunikabideek nola ematen duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteen berri. Gillen arabera, azterketa ideologikoa eskola marxistaren tradizio luze batetik dator; izan ere, albistea ikuspegi kritikotik behatu behar da, hau da, kontuan hartuta nola diren menderatze-harremanak eta nola bizi eta deskribatzen diren naturaltzat, saihetsezintzat edo desiragarritzat (2007).

Ikerketa berrienetako bat Breen-ek eta beste batzuek 2015ean egindako lana da: «*Exploring Australian journalism discursive practices in reporting rape: the pitiful predator and the silent victim*». Ikertzaile-taldeak aztergaitzat hartuko du bortxaketa-kasu bati buruzko narrazioak, paperean eta online argitaratuak. Azterketa kritikoa egiteko, ikertzaileek hausnarketa-jarrera hartu behar dute berrien azterketa sistematikoan. Ez da espero jarrera objektiboa edo neutrala izatea, baizik eta ikerketa egiten duenak alderdi guztiak modu kritikoan aztertzea. Horrela, zehatz-mehatz aztertzen dira titular bakoitza, lehenengo lerroak, paragrafo bakoitzaren antolaketa eta erabiltzen diren kontzeptuak. Ikerketa honek albistearen alderdi hauek biltzen ditu: lokalizazioaren irudikapena, egilearen eta biktimaren irudikapena, krimenaren irudikapena eta beste ikuspuntu batzuk.

Aztergai horri heltzeko, teknikarik egokiena edukiaren analisia da, pieza, artikulu eta informazio kopurua kontuan hartuta, ezinezkoa baita analisi kritikoa egitea, batez ere kasu eta pieza kopuru mugatu bati aplikatuta. Era berean, komunikabideen aniztasuna eta analisi-tresna homogeneizatu beharra direla-eta, ezinezkoa da azterketa semiotikoaren bidezko ikerketa. Edukiaren analisia da gehien erabiltzen den metodoa kasu-kopuru handi bati eta pieza edo artikulu kopuru esanguratsu bati heltzen zaionean. Fagoagaren lanean bezala (1999:16), ikerketa honek batera erabiltzen ditu edukien analisia eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteak idazten edo koordinatzen dituzten adituei egindako elkarrizketa sakonak.

Espainiako telebisten albistegiei buruzko antzeko ikerketa bat egin zen 2009tik 2011ren erdialdera (Bandrés, 2011), kate nagusiek emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioak tratatzeko egindako akordiotik abiatuta. Azterlan horretan, honako alderdi hauek hartu ziren kontuan: salaketa-telefonoa jartzea, epaien estaldura, biktimari eragindako kalteak azpimarratzea, biktimari buruzko informazioaren azterketa, ohitura profesionalen eta estereotipoen aldaketak, biktimarioaren justifikazioa egotea, ondorio penalei buruzko datuak sartzea, kondena-epaiei buruzko informazioa, eta adituen aholkularitza. Ikerketaren ondorioa izan zen akordioek ezarpen txikia zutela (Bandrés, 2011).

Aurretiko azterlan horietatik abiatuta, ikerketa honen helburua da aztertzea Euskadin 2015etik 2017ra bitartean emakumeen aurka gertaturiko indarkeria-kasuak, heriotza eragin zutenak, horretarako kontuan hartuta zer isla edo irudikapen izan zuten zenbait komunikabideren lagin batean. Hona antzemandako kasuak:

3. TAULA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ONDORIOZKO HERIOTZAK EUSKADIN (2015-2017)

KASUA	URTEA	DATA	LEKUA	BIKTIMA
1	2015	apirilak 2	Vitoria-Gasteiz	M.A.P.
2	2015	abuztuak 8	Bilbo	L.R.M.
3	2015	urriak 4	Erandio	M.A.M.
4	2016	uztailak 23	Bilbo	M.A.P.
5	2017	irailak 28	Sestao	N.N.G.
6	2017	urriak 3	Miranda	A.B.J.

Iturria: Geuk egina.

Azterlan honen lehen helburua da ikustea ea komunikabideek beren informazioak lantzean kontuan hartu duten albiste-tratamenduan komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria tratatzeko sinatutako dekalogoa.

Ikerketa honen bigarren helburua da jakitea zer egoera duen prentsak Euskadin, oro har emakumeen aurkako indarkeria prentsan tratatzearen bilakaeratik lortzen den kategorizazioari dagokionez, eta, bereziki, heriotzaren emaitza duenari dagokionez, 2015 eta 2017 artean. Horretarako, eredu-koadro bat egin da elementuekin eta horiek prentsan islatzeko moduarekin, eredu bakoitzeko elementuen arabera (albiste ez dena, tematizazioa eta inpaktu handia): izena, albistearen garrantzia, testuingurua, biktimaren tratamendua, biktimarioaren tratamendua eta erabilitako iturriak.

4. TAULA. KOMUNIKABIDEEN EGOERA SAILKATZEKO EREDU IDEALAK, HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI DAGOKIONEZ

ELEMENTUAK	ALBISTE EZ IZATEA	ALBISTEA	ARAZO SOZIALA
Izena	Pasio-krimena	Etxeko indarkeria	Genero-indarkeria
Atala	Gertakariak/Gizartea	Gizartea/Tokiko berriak	Lehenengo orrialdea, iritzia, eta abar
Tamaina	Txikia	Ertaina	Handia
Testuingurua	Gertaera isolatua	Testuinguruarekin	Testuinguruarekin eta gertakaririk gabe
Narrazioa	Amodiozko arazoa	Poliziakoa	Gizarte-arazoa
Iturriak	Iturririk ez/Auzokideak	Iturri ofizialak	Adituak
Oreka	+ Biktima	–	+ Biktimarioa
Biktimarioa	Pasioa	Drogak, alkohola, arraroa	Ez da arrazoitzen

Iturria: Geuk egina.

5. TAULA. EREDUAK ZEHAZTEN DITUEN ELEMENTUETAKO BAKOITZA NEURTZEKO EGINDAKO ADIERAZLEAK

ELEMENTUAK	ADIERAZLEAK KONTZEPTUA NEURKETA	
Izena	Izena	Nola aipatzen duten gertakaria albistearen barruan
Atala	Atala	Zer ataletan agertzen den albistea
Garrantzia	Orrialdeak	Zenbat orrialde albisteari buruz
	Luzera	Orrialdearen %a
	Argazkiak	Argazki-kopurua, motaren arabera
	Argazkiak	Argazkien kolorea, motaren arabera
	Bideoa	Bideo eta guzti, prentsa digitalean
Testuingurua eta Narrazioa	Aurretiko salaketak	Biktimak biktimarioari jarritako salaketak
	Babes-neurriak	Biktimari emandako babes-neurriak
	Informazioa	Informazio erabilgarria indarkeria matxistaren biktimentzako baliabideei buruz
	Atxiloketa	Biktimarioaren atxiloketa aipatzen den ala ez
	Tresnak	Delitua egiteko erabilitako tresnak
	Motibazioa	Motibazioaren bat azaltzen da? Zein?
	Datu gehigarriak	Biktimari buruzko datu gehigarriak, narrazioari eragiten diotenak
	Argazkiak eta irudiak	Irudien edukia
Iturriak eta sinadura	Iturriak	Zein iturritatik jasotzen da albistea egiteko erabiltzen den informazioa?
	Sinadura	Sinadura pertsonala
		Ohiko kazetarien sinadura
		Sinaduraren aldakortasuna
		Zenbat kazetari emakumezko albisteak sinatzen
Biktimak/ Biktimarioa	Identifikazioa	Biktima eta biktimarioa identifikatzen diren
	Adina	Adina adierazten den
	Nazionalitatea	Nazionalitatea adierazten den
	Lanbidea	Lanbidea adierazten den

Iturria: Geuk egina.

Egindako matrizeak, beraz, item ugari biltzen ditu, ikerketaren bi helburuei erantzutea ahalbidetzen dutenak. Definitutako adierazleetatik eta hautatutako esangura-itemetatik abiatuta, proiektu hau osatzen duten lehen mailako iturriak aztertuko dira. Sei kasuei buruz hedabideek argitaratutako eduki guztiak aztertu dira. Hona hemen aztertutako komunikabideen zerrenda:

– Egunkariak: *Berria, El Correo, Deia, Diario de Noticias de Álava, Diario de Noticias de Gipuzkoa, Diario Vasco* eta *Gara*, haien edizio digitalez gain.

– Bertako komunikabide digitalak: diarionorte.es

– Telebistak: ETB1, ETB2 eta RTVE (Telenorte).

– Irratiak: Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Cope, Onda Cero, Onda Vasca eta SER.

Guztira, egunkariko 369 artikulu eta telebistako eta irratiko 51 pieza aztertu dira, ondorengo tauletan jasotzen den bezala.

6. TAULA. PRENTSAN AZTERTUTAKO LAGINA

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
Berria	7	5					12
Deia	5	16	12	6	7	6	52
Diario de Noticias de Álava	10	1	10	1	1	9	32
El Correo Álava	17	4	4		1	28	54
El Correo Bizkaia	6	35	27	8	9	5	90
El Diario Vasco	10	13	11	2	7	4	47
Gara	6	19	7	3	8	10	53
Noticias de Gipuzkoa	5	5	8	3	3	5	29
GUZTIRA, ORO HAR	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**

Iturria: Geuk egina.

7. TAULA. PRENTSA-MOTA, MODALITATEAREN ARABERA

Edizio digitala	20	29	27	6	14	26	122
Edizio idatzia	46	69	52	17	22	41	247
GUZTIRA, ORO HAR	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**

Iturria: Geuk egina.

Prentsaren kasuan, hedabideen katalogo honek egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten informazio orokorreko goiburu nagusiak hartzen ditu. Zabalkundea Neurtzeko Bulegoaren eta Hedabideen Azterlan Orokorraren datuen arabera, prentsan inprimatutako eguneroko hedabideen hedapenaren % 90 biltzen dute.

Irratien kasuan, irizpide berari jarraituz (CIES eta EGMren datuak), egoitza autonomia-erkidegoan duten irrati-etxe nagusien informazioak aztertu dira, baita estatuko kateen tokiko deskonexioak ere.

Bestalde, aukeratutako telebistek (ETB1, ETB2 eta RTVE) ere informazio-bolumen handia ematen dute Euskadin; gainerako kateetan, aldiz, ia ez dago tokiko deskonexiorik.

8. TAULA. LAGINA TELEBISTA ETA IRRATIRAKO

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
Telebista							
Eitb.eus	1	9	10	4	1	6	31
Telenorte		1	3			3	7
Guztira, oro har	1	10	13	4	1	9	38
Irratia							
Cadena Ser	1	1	0	0	1	1	4
Cope	0	1	0	0	0	0	1
Eitb.eus	0	0	0	0	0	5	5
Onda Cero	0	0	0	0	0	3	3
Guztira	1	2	0	0	1	9	13
GUZTIRA: TELEBISTA + IRRATIA	**2**	**12**	**13**	**4**	**2**	**18**	**51**

Iturria: Geuk egina.

Azterlana osatzeko, kasu-azterketako teknikak eta informazio-arlo horiek egiteko ardura duten pertsonei egindako elkarrizketa sakonak erabili dira. Elkarrizketa horiek 2018ko uztailean eta irailean egin dira.

Komunikabide hauen arduradunei egin zaie elkarrizketa:

– COPE Euskadi

– Deia

– eitb.eus

– El Correo

– Euskal Telebista

– Radio Euskadi

– Onda Cero

– Onda Vasca

– SER Euskadi

– RTVE

5

EMAITZAK

IZENA

5.1

Azterlan honetan aztertutako 369 prentsa-artikuluetatik, % 33,6k «*genero-indarkeria*» kontzeptua erabiltzen du gertakarien lehen aipamenean. Kategoria horren barruan sartu da emakumeen aurkako edo emakumeenganako indarkeriaren erreferentzia, zeina bi aldiz baino ez baita agertzen, kasuak lehenengoz aipatzean. Gainera, kalifikazio hori da sei kasuetatik lautan gehien agertzen dena. Beste bietan, batez ere «matxista» kontzeptua erabiltzen da gertaerak lehen aldiz aipatzeko. Hala egiten dute 5. eta 6. kasuetako albisteen % 50ek. Berezia da 4. kasua, albiste gutxien biltzen dituena ez ezik, «*genero-indarkeria*» kontzeptua delako haiek guztiek lehenik eta behin gertaerak aipatzeko erabiltzen duten kontzeptua.

Albisteen % 66k erabiltzen dituzte, hasiera batean, bi izenak: «*genero-indarkeria*» eta «*matxista*»; % 8,9k, berriz, «*erailketa*». Salbuespen bakarra 3. kasua da, non gertakariaren ezaugarriek protagonismo handia duten, eta, horren ondorioz, «*ibilgailuak harrapatzea*» esamoldea albisteen % 17,3an ageri da.

Hasiera batean, gertaerak «*krimen*» edo «*giza hilketa*» gisa kalifikatzen dira kasuen % 6an eta % 4,3an, hurrenez hurren, eta definizio horiek arazoaren kontzepzio sozialetik urrunago daude.

«*Ustezko*» ez da erabiltzen gertaerei buruzko lehen aipamenetan, 2. kasuari buruzko lau albistetan izan ezik. «*Beste batzuk*» kategoriaren barruan, «*gaitz*» kontzeptua sartzen da, batzuetan gertakari horiek aipatzeko.

9. TAULA. PRENTSA IDATZIAK ZER LEHEN IZEN EMAN DION HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI

KASUAK	1		2		3		4		5		6		GUZTIRA	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
Erailketa	7	10,6	3	3,1	12	15,2	0	0,0	1	2,8	10	14,9	33	8,9
Ibilgailuz harrapatzea	0	0,0	17	17,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	17	4,6
Krimena	5	7,6	7	7,1	7	8,9	0	0,0	1	2,8	2	3,0	22	6,0
Giza hilketa	1	1,5	6	6,1	5	6,3	0	0,0	0	0,0	4	6,0	16	4,3
Matxista [1]	18	27,3	24	24,5	27	34,2	0	0,0	18	50,0	33	49,3	120	32,5
Heriotza	0	0,0	2	2,0	2	2,5	0	0,0	1	2,8	2	3,0	7	1,9
Indarkeria	24	36,4	29	29,6	22	27,8	23	100,0	14	38,9	12	17,9	124	33,6
Ez daki/ Ez du erantzuten	11	16,7	10	10,2	4	5,1	0	0,0	1	2,8	4	6,0	30	8,1
GUZTIRA	**66**	**100,0**	**98**	**100,0**	**79**	**100,0**	**23**	**100,0**	**36**	**100,0**	**67**	**100,0**	**369**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Telebistarako eta irratirako datuak ez datoz bat prentsako datuekin, kasuari ematen zaion lehen izendapenari dagokionez; izan ere, «*erailketa*» da gehien erabiltzen den kontzeptua:

[1] Oharra: *«matxistak» barnean hartzen du «sexista», eta «heriotzak» barnean hartzen du «hiltzea».*

aztertutako 51 piezen % 43,1ean. Bereziki, 6. kasuari dagokionez; izan ere, aztertutako 18 berrietatik 14k izendapen hori jasotzen dute gaiari buruzko lehen hurbilketan. «*Matxista*», «*genero-indarkeria*» edo «*emakumeen aurkako indarkeria*» kontzeptuak erabiltzen dira kasuen % 47an; aztertutako 51 albisteetatik 44k horrela aipatzen dituzte gertaerak lehen adieran. Bereziki garrantzitsua da haien presentzia 2. eta 3. kasuetan.

10. TAULA. TELEBISTEK ETA IRRATIEK ZER LEHEN IZEN EMAN DIOTEN HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Istripua	0	1	0	0	0	0	1	2,0
Erailketa	0	3	3	2	0	14	22	43,1
Crimen	0	0	0	0	0	1	1	2,0
Machista [1]	1	3	5	1	1	1	12	23,5
Genero indarkeria	1	5	3	1	1	1	12	23,5
Beste batzuk	0	0	0	0	0	1	1	2,0
Ez daki/ez du erantzuten	0	0	2	0	0	0	2	3,9
GUZTIRA, ORO HAR	**2**	**12**	**13**	**4**	**2**	**18**	**51**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Testuan zehar, izenari «*nazkagarria*», «*brutala*», «*zoritxarrekoa*», «*makabroa*», «*tragikoa*», «*lazgarria*» eta antzeko adjektibo kalifikatzaileak gehitzen zaizkio, nahiz eta oso ohikoak ez izan. Era berean, gertaerak «*balizkotzat*» jotzen diren hiru aldiez gain, testuan zehar beste 13 aldiz erabiltzen dira adjektibo hipotetikoak, hala nola «*posible*», «*ustezko*» edo «*balizko*».

11. TAULA. IDATZIZKO PRENTSAK ZER IZEN EMAN DION, TESTUAN ZEHAR, HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI

KASUAK	1		2		3		4		5		6		GUZTIRA	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
Erailketa	8	10,0	18	10,5	28	18,5	7	7,9	12	11,7	47	24,7	120	15,3
Ibilgailuz harrapatzea	0	0,0	31	18,1	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	31	4,0
Krimena	5	6,3	17	9,9	18	11,9	4	4,5	14	13,6	47	24,7	105	13,4
Giza hilketa	6	7,5	8	4,7	8	5,3	4	4,5	0	0,0	4	2,1	30	3,8
Matxista	22	27,5	44	25,7	43	28,5	12	13,5	30	29,1	43	22,6	194	24,7
Heriotza	0	0,0	4	2,3	10	6,6	18	20,2	9	8,7	15	7,9	56	7,1
Tragedia	0	0,0	2	1,2	2	1,3	0	0,0	5	4,9	4	2,1	13	1,7
Indarkeria	36	45,0	41	24,0	33	21,9	41	46,1	26	25,2	17	8,9	194	24,7
Bestelakoak	3	3,8	6	3,5	9	6,0	3	3,4	7	6,8	13	6,8	41	5,2
GUZTIRA	**80**	**100,0**	**171**	**100,0**	**151**	**100,0**	**89**	**100,0**	**103**	**100,0**	**190**	**100,0**	**784**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

«*Erailketa*» kontzeptuak garrantzi handia badu ere telebistan eta irratian gertakariei buruzko informazioen lehen aipamenean, albistearen garapenean garrantzi handiagoa hartzen ari dira «*matxista*» *eta* «*genero-indarkeria*» kontzeptuak. Horrela, aztertutako 51 piezetatik bildutako 74 izendapenetan, kontzeptu horien pisua ikusten da. «*Matxista*» da lehen tokian, kasuen % 28,4an aipatzen baita; ondoren, «*erailketa*» dago (% 25,7), eta, hirugarrenik, «*genero-indarkeria*» (% 18,9). Inola ere ez da aipatzen «*etxeko indarkeria*», ezta «*pasio-krimena*» ere. «*Krimen*» kontzeptua (generikoa) aldien % 12,2an baino ez da erabiltzen.

12. TAULA. TELEBISTAK ETA IRRATIAK ZER IZEN EMAN DIOTEN HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Erailketa	2	2	4	1	1	9	19	25,7
Ibilgailuz harrapatzea	0	2	0	0	0	0	2	2,7
Krimena	1	0	2	1	0	5	9	12,2
Giza hilketa	0	0	1	1	0	0	2	2,7
Matxista	2	6	3	1	1	8	21	28,4
Genero indarkeria	1	2	4	2	1	4	14	18,9
Beste batzuk [2]	1	1	1	0	0	4	7	9,5
GUZTIRA, ORO HAR	**7**	**13**	**15**	**6**	**3**	**30**	**74**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Gertaera «*genero-indarkeria*», «*matxista*» edo «*emakumeen aurkako indarkeria*» gisa kalifikatzea oso zabalduta dago EAEko komunikabideetan. Hala jasotzen dute edukiaren analisiaren datu kuantitatiboek, eta elkarrizketatutako pertsona guztiek ere halaxe adierazten dute. Horietako batzuk komunikabideetako estilo-liburuei buruzkoak dira: «*Hori buru-belarri lantzen ari gara Berdintasun Batzordean. Gauzak markatzen dituen estilo-liburu bat dugu, baina konplikatuagoa da hori jendeari transmititzea*» (T3). Beste komunikabide batzuetan kontaktu pertsonalen bidez kudeatzen da: «*Hemen konplizeak behar dira, eta pilulatxoekin bezala egin beharko da, edo ez dakit nola*». Batzuetan, kalifikatzaile batzuei eman zaie lehentasuna: «*Indarkeria matxista, hil edo erail badu … emakumeen aurkako indarkeria, genero-indarkeria eta ez dugu asko erabiltzen*» (T2) Nolanahi ere, argi eta garbi baztertutako terminoak daude: *«(…) Etxeko eta familiako indarkeria baztertzen ditugu» (T5). «Aspalditik ez dugu erabiltzen edulkoratutako terminorik»* (T11).

Erredakzio-arduradun batzuk haratago doaz:

> «*Indarkeria denean, hildako emakumeren bat badago, hori ez da indarkeria, erailketa, hilketa edo feminizidioa baizik. Asko gustatzen zait termino hori. Hemen ezin dut erabili … Indarkeria matxista da gehien erabiltzen duguna*» (T1).

Batzuetan, erredakzio-arduradunek onartzen dute zenbait kontzeptuk ihes egiten dietela: «*Informazio bera esku askotatik pasatzen da: editoreak, erredaktoreak, buletinak egiten dituen jendea, gauez sartzen diren eta egunekoekin komunikatzerik izan ez duten pertsonak, iritzia, berriak kanpoan landu eta inprobisatu beharra duen jendeari zerbaitek huts egitea….*» (T3). Egoera horren aurrean, ahal bada, okerrak zuzentzen saiatzen da: *«Nik ere hitz egin dut gaur gaueko eta goizeko erredaktoreekin, idatzi zituzten gauza batzuengatik».* (T4)

[2] Oharra: *«Beste batzuk» atalean «gertaera nazkagarria» edo «gertaera koldarra» bezalako kalifikatzaileak jasotzen dira, eta hirutan «gaitza» kalifikatzailea.*

ATALA 5.2

Sekzio edo atalei dagokienez, heriotza dakarren emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioak, EAEko prentsan, Tokikoa (% 42,7) eta Gizartea (% 18,8) ataletan agertu dira, batez ere, eta, neurri txikiagoan, Gertakariak (% 7,8) atalean.

EAEko komunikabideek emakumeen aurkako indarkeria-kasu horiei eman dieten garrantzia ikus daiteke inprimatutako egunkariek sei kasu horiei eskaini dizkieten 54 informazioetan, dela erailketari emandako estalduragatik, dela gaitzespen-ekintzenarengatik, eta abar.

Editorialei dagokienez, inprimatutako hedabideek guztira 8 testu eta 2 iritzi-testu biltzen dituzte. Horrek bigarren etapan kokatuko luke EAEko prentsa, hau da, gertaeren ataletik atera da, baina hausnarketa handieneko eremuan, hau da, editorialean edo iritzian, garrantzi txikiagoa du.

13. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ALBISTEEN ATALA PRENTSA IDATZIAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Egunean	1	3	2	1	4	0	11	3,0
Editoriala	1	0	3	1	3	0	8	2,2
Tokikoa	24	42	32	13	15	33	159	42,7
Iritzia	0	2	0	0	0	0	2	0,0
Azala	12	16	11	1	5	9	54	14,5
Gizartea	16	13	21	4	4	12	70	18,8
Gertakariak	8	11	5	0	1	4	29	7,8
Bestelakoak	4	15	6	3	4	9	41	11,1
GUZTIRA	**66**	**102**	**80**	**23**	**36**	**67**	**374**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Telebistako 38 berrien kasuan, EITBren 31 berriak Gizarteari buruzko atalaren barruan daude, eta Telenorteko 7 berriak, berriz, ez daude atal zehatz batekin identifikatuta. Ikus-entzunezko komunikabideek albisteari ematen dioten garrantzia elkarrizketetan ikusten da: *«Hemen bada (EAEri dagokionez), lehenengo albistea da «(...)» lehen blokean»* (T1). *«Emakume baten erailketa irekiera da, egun horretan gertatzen dena gertatzen dela. Edozein berri politiko eta ekonomikoren aurretik jarriko litzateke, eta beste zoritxar bat baino ezingo litzateke nagusitu»* (T5).

GARRANTZIA: ORRIALDEAK, LUZAPENA ETA ARGAZKIAK 5.3

Albisteak jorratzen diren orrialdeen azterketak komunikabideak albisteari ematen dion garrantziaren adierazle bat eskaintzen du. Horrela, azaleko informazioen protagonismo eztabaidaezinaz gain, diseinuaren hierarkizazioak adierazten du orrialde bakoitiek lehentasuna dutela bikoitien aldean. Horrela, egunkarien edizio inprimatuetan, aztertutako 247 berrien % 21,9 egunkariaren azalean agertzen ziren. Proportzio horri kasu guztietan eusten zaio, 3. zenbakian izan ezik, behin bakarrik hartu baitzuen azala. Joera orokorra da albisteek presentzia handiagoa izatea orrialde bikoitietan: % 42,9; bakoitietan, berriz, % 35,2. Salbuespen gisa, orrialde bakoitietako berrien proportzioa handiagoa da 5. kasuan.

14. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ALBISTEEK PRENTSA IDATZIAN BETETZEN DITUZTEN ORRIALDEAK

KASUAK	1		2		3		4		5		6		GUZTIRA	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
Azala	12	26,1	16	23,2	11	21,2	1	5,9	5	22,7	9	22,0	54	21,9
Bikoitia	18	39,1	29	42,0	21	40,4	11	64,7	7	31,8	20	48,8	106	42,9
Bakoitia	16	34,8	24	34,8	20	38,5	5	29,4	10	45,5	12	29,3	87	35,2
GUZTIRA	**46**	**100,0**	**69**	**100,0**	**52**	**100,0**	**17**	**100,0**	**22**	**100,0**	**41**	**100,0**	**247**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Albistearen garrantzia neurtzeko beste adierazle bat informazioen luzera da. «*Berririk ez*» deitu dugun ereduan, adibidez, gertaerei heltzen dieten piezen tamaina txikia zen, orrialdearen % 10etik beherakoa.

Luzeraren analisia bi adierazletan neurtzen da: zenbat orrialde dituzten eta albisteak orrialde batean hartzen duen luzeraren ehunekoa. Beheko taulan ikus daitekeenez, albiste gehienek ez dute orrialde bat baino gehiago hartzen; hala, artikuluen edo piezen % 6,5ek soilik eskaintzen diote albisteari bi orrialde, bereziki 1. kasuan (orrialde bikoitzeko 4 berri) eta 2. kasuan (orrialde bikoitzeko 10 berri).

Inprimatutako komunikabideetan gertaeren berri ematen duen orrialde baten ehunekoa da albistearen garrantzia zehazten duen beste adierazle bat. Prentsa idatzian argitaratutako 247 berrien % 38,9k orrialde baten erdia baino gehiago hartzen du; aitzitik, berrien ia % 30ak % 20 baino gutxiago hartu du. Luzera edo hedadura mugatu horrek zaildu egiten du genero-indarkeria testuinguruan kokatzea. Luzerari dagokionez, ez dago alderik aztertutako kasuen artean. 2. kasua baino ez litzateke nabarmendu behar, luze-zabal handiko piezen proportzioa ia % 45ekoa baita.

15. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ALBISTEEN LUZE-ZABALERA PRENTSA IDATZIAN

KASUAK	1		2		3		4		5		6		GUZTIRA	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
% 0-20	15	32,6	19	27,5	13	25,0	5	29,4	6	27,3	12	29,3	70	28,3
% 20-50	15	32,6	19	27,5	21	40,4	7	41,2	6	27,3	13	31,7	81	32,8
% 50-% 100	12	26,1	21	30,4	18	34,6	5	29,4	9	40,9	15	36,6	96	38,9
> 1 or.	4	8,7	10	14,5	0	0,0	0	0,0	1	4,5	1	2,4	16	6,5
GUZTIRA	**46**	**100,0**	**69**	**100,0**	**52**	**100,0**	**17**	**100,0**	**22**	**100,0**	**41**	**100,0**	**247**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Telebistei eta irratiei dagokienez, aztertutako 51 piezetatik 27 webgunekoak dira, eta, beraz, egunerokoen antzera neurtu daiteke horien luzera. Gainerako informazioei dagokienez, % 66,7k bi minutu baino gutxiago irauten du.

16. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ALBISTEEN LUZE-ZABALERA TELEBISTAN ETA IRRATIAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Testuzkoak	1	5	7	4	1	9	27	
>01:00	0	1	0	0	0	2	3	12,5
01:00-01:30	1	2	4	0	0	2	9	37,5
01:30-02:00	0	2	0	0	0	2	4	16,7
02:00-02:30	0	2	1	0	0	2	5	20,8
<02:30	0	0	1	0	1	1	3	12,5
GUZTIRA	1	7	6	0	1	9	24	100,0
GUZTIRA, ORO HAR	**2**	**12**	**13**	**4**	**2**	**18**	**51**	

Iturria: Geuk egina.

Albisteen garrantzia aztertzen amaitzeko, albistearekin batera irudi bat jartzea da ikusgarritasuna eta garrantzia ematen dien elementuetako bat. Txosten honek horri buruzko bi adierazle jasotzen ditu: albistegiekin batera doan argazki-kopurua eta irudiak koloretakoak edo zuri-beltzekoak diren. Argazkiak erabiltzeko irizpideak oso desberdinak direnez hedabide inprimatuetan eta digitaletan, taulak bereizita aurkezten dira hedabide mota bakoitzerako.

Horrela, egunkari digitaletako informazioen % 81,1 argazkiekin batera agertzen dira, nahiz eta oso bakanak diren testuari irudi bat baino gehiago eransten dioten kasuak: % 5 baino gutxiago. Komunikabide inprimatuetan, aldiz, argazki bat txertatzen duten informazioen kopurua txikiagoa da (% 67,2), baina irudi bat baino gehiago duten piezak % 12,9 dira.

17. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO BERRIETAKO ARGAZKIEN KOPURUA PRENTSA IDATZIAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Digitala	20	29	27	6	14	26	122	100,0
0	4	4	4	4	3	4	23	18,9
1	16	24	23	2	8	21	94	77,0
2	0	0	0	0	0	1	1	0,8
>2	0	1	0	0	3	0	4	3,3
Inprim.	46	69	52	17	22	41	247	100,0
0	20	29	22	8	11	11	81	32,8
1	19	31	24	7	8	25	114	46,2
2	6	7	5	2	0	4	24	9,7
>2	1	2	1	0	3	1	8	3,2
GUZTIRA	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**	**100**

Iturria: Geuk egina.

Koloretako argazkiak elementu garrantzitsutzat har daitezke egunkari inprimatuen kasuan, baina ez dute izaera hierarkizatzailerik hedabide digitalen kasuan, irudi guztiak baitira garrantzitsuak haietan. Paperezko edizioetan, argazkien % 69,2 koloretakoak ziren. Desberdintasunak ikus daitezke kasuen artean; izan ere, 1. kasuan, berrien ia % 50ek ez dute laguntza grafikorik, eta laguntza grafikoa dutenetan, antzeko proportzioan agertzen dira koloretako argazkiak eta zuri-beltzekoak. Beste muturrean dago bigarren kasua: 69 berrietatik 42tan irudi bat ageri da, eta horietatik 3 baino ez dira zuri-beltzekoak.

18. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO BERRIETAKO ARGAZKIEN KOLOREA PRENTSA IDATZIAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Digitala	**20**	**29**	**27**	**6**	**14**	**26**	**122**	**100,0**
Argazkirik ez	4	4	4	4	3	4	23	18,9
Kolorez	16	25	23	2	11	22	99	81,1
Idatzia	**46**	**69**	**52**	**17**	**22**	**41**	**247**	**100,0**
Argazkirik ez	20	27	22	8	10	11	98	39,7
Argazkia	26	42	30	9	12	30	149	60,3
Zuri-beltzez	11	3	7	2	4	5	32	30,8
Kolorez	15	39	23	7	8	25	117	69,2
GUZTIRA	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Prentsa digitalean, bideo bat ere agertzen da batzuetan pieza horrekin batera, baina ez da ohikoa emakumeen aurkako indarkeriarengatiko heriotzei buruzko berrien kasuan. Lau berri baino ez ditugu aurkitu, bi 5. kasuari buruzkoak eta beste bi 6. kasuari buruzkoak. Aldiz, telebisten eta irratien testu formatuko 27 berrietan, 17k argazki bat zuten, guztiak koloretan.

19. TAULA. HERIOTZA DAKARREN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO BERRIETAKO ARGAZKIEN KOLOREA TELEBISTAN ETA IRRATIAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Argazkirik ez	0	2	4	2	2	1	11	39,3
Kolorez	2	3	3	2	1	6	17	60,7
GUZTIRA	**2**	**5**	**7**	**4**	**3**	**7**	**28**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

TESTUINGURUA ETA NARRAZIOA 5.4

Oro har, aztertutako informazioen testuingurutze-maila txikia da. Dekalogoak informazio erabilgarria emateko gomendioa egin badu ere, hala nola tratu txarren biktimentzako arreta-telefonoa (016) edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko arreta-zerbitzua (SATEVI) (900 840 111), egia esan, berrien % 4,6k soilik jasotzen dute informazio mota hori. Neurri eta informazio erabilgarri gutxi izateak ez die soilik eragiten genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeei: emakumeen aurkako indarkeriaren gizarte-arazoa testuinguruan jartzeari ere eragiten dio.

Komunikabideen arduradunek esan dute, oro har, telefonoa automatikoki sartzen dutela. Hori egiten ez dutenen artean ere jarrera positiboa da, hau da, baliagarria dela eta berriro ekin behar diotela uste dute.

> *«Estilo-liburuan jasotzen denez, EAEko 900 840 111 telefono-zenbakia eta 016 telefono-zenbakia eman behar ditugu. Ez dakit utzikeriagatik edo estilo-liburua irakurtzen ez dugulako, baina ez dugu sartzen». (T3)*

> *«Orain sartzen saiatzen ari gara, baina egia da laburtzeko orduan datu hori kentzen dugula, nahiz eta azpimarratu behar den datu garrantzitsua dela, eman beharrekoa, eta emakumeek badakitela». (T9)*

> *«Kronikak ez moztea gustatuko litzaidake (…). Telefonoa beti hor egotea gustatuko litzaidake, eta entzuten ari denak, batez ere indarkeria matxistaren biktima den emakume bat badago, entzun dezala, agian ez du deituko, baina bai, agian, orduan uste dut hori gure egitekoa ere badela, ez gizartean». (T9)*

> *«Lehen –begira, esan didazunez, proposatuko dut– informazio bakoitzaren ondoren telefonoen informazio-laukitxo bat genuen, eta aspalditik ez: berriz ere jartzeko esango dut».* (T12)

Eskaintzen diren estatistikei eta datuei dagokienez, komunikabideek mendetasun handia erakusten dute iturriekiko, hots, Segurtasun Ministerioarekiko edo Sailarekiko. Adibide gisa, Estatuko kasu bati dagokionez, elkarrizketa egin zaionetako batek adierazi du nola ematen den eraildako emakumeen datua:

> *«Normalean urtekoa egiten genuen; orain bai, nik noizbait, e, ministroak berak, Carmen Calvo, egin zuela, lehen urteko zenbaketa egiten zelako, hark zenbaketa orokorra egin zuen, eta orduan bai, eman dugu datu hori inoiz».* (T9)

Komunikabideek bere narrazioetan emakumeen aurkako indarkeria bere testuinguruan jartzen lagun dezaten, ezinbestekoa da, halaber, gertaera puntualaren aurretik dauden elementu bortitzak aipatzea, hala nola salaketarik dagoen ala ez. Nahiz eta aldez aurreko salaketarik ez izan, salaketarik ez dagoela esplizituki azaltzeak lagundu egiten du indarkeria-prozesuari buruzko ikuspegia luzatzen denboran zehar. 369 berrietatik 53k bakarrik aipatzen dute aurretiko salaketarik badela (15) edo ez dela (38).

Kasuen tratamendua ez da berdina. 5. kasuan, 36 berrietatik 16k (% 44,4) adierazi dute ez dagoela aurretiazko salaketarik. Era berean, 4. kasuari buruzko 23 berrietatik 15ek (% 65,2) aurretiko salaketak jasotzen dituzte. Azkenik, neurriei, telefonoei eta salaketarik ezari buruzko informazioa 1. eta 3. kasuetan biltzen da.

20. TAULA. TESTUINGURUARI BURUZKO DATUAK IDATZIZKO PRENTSAKO INFORMAZIOETAN

	SALAKETAK EZ	SALAKETAK BAI	NEURRIAK	INFORMAZIOA	TEL.	GUZTIRA
1. kasua	12	0	2	3	2	66
2. kasua	0	0	0	2	4	98
3. kasua	1	0	0	0	11	79
4. kasua	0	15	8	0	0	23
5. kasua	16	0	0	0	0	36
6. kasua	9	0	0	0	0	67
GUZTIRA	**38**	**15**	**10**	**5**	**17**	**369**
%	**10,3**	**4,1**	**2,7**	**6,3**	**4,6**	**12,7**

Iturria: Geuk egina.

Informazio-elementuen eta testuinguru-elementuen presentzia urria errepikatu egiten da era horretako albisteak telebistan eta irratian tratatzean. Horrela, hedabide horietan aztertutako 51 piezetatik, 6k soilik jasotzen dute mota horretako daturen bat. Era berean, salaketen % 4,1ek soilik aipatzen du aurretiazko salaketak daudela: lauk, salaketa daudela nabarmentzeko (4. kasua eta 5. kasua), eta bostek, salaketa horiek ez daudela nabarmentzeko (2. kasua eta 3. kasua). Neurriak 4. kasuari dagozkion piezetako bitan baino ez daude jasota.

TABLA 21. DATOS CONTEXTUALIZADORES EN LAS INFORMACIONES EN RADIO Y TELEVISIÓN

	SALAKETAK EZ	SALAKETAK BAI	NEURRIAK	INFORMAZIOA	TEL.	GUZTIRA
1. kasua	0	0	0	0	0	2
2. kasua	0	2	0	0	0	12
3. kasua	0	3	0	0	2	13
4. kasua	3	0	2	0	2	4
5. kasua	1	0	0	0	0	2
6. kasua	0	0	0	0	2	18
GUZTIRA	**4**	**5**	**2**	**0**	**6**	**51**
%	**7,8**	**9,8**	**3,9**	**0,0**	**11,8**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Salaketei buruzko informazioa emanez gero, profesionalen artean badago eztabaida bat, aldez aurretik salaketarik egon ez bada zer egin jakiteko, hots, informazio hori alde batera utzi edo eman: «*Gure konpromisoa, emakumeak salatu ez badu, egoera horretan emakumeei laguntzeko ahots horiek bilatzea da» (T3). Beste batzuetan, nahiago dute ez adieraztea: «Ezetz iruditzen zait; izan ere, salaketarik jarri ez duela kontatzen ari badira, emakumearen gainean ari zara karga jartzen. Salaketarik jarri ez zuelako hil dute. Pixka bat korapilatsua da, eta ez zuen babesik eskatu, babesa eskatu ez zuen kasuetan, eta hori esplizituki esaten digute» (T7). «Niri ez zait gustatzen «salaketarik ez» gaia agertzen denean (…) badirudi emakumeak duela errua, ez duelako salatu eta hil dutelako, hau da, salatu egin behar zuela. Hori egiten jarraitzen dugu*» (T12).

Aurretiazko salaketarik egon bada, ez dago zalantzarik: «*Bai, asko nabarmendu behar dugu aldez aurreko salaketak edo aurrekariak egon izana; izan ere, nola permititu dezakegu azkenean emakumeak biktima izatea aldez aurreko salaketak edo urruntze-aginduak egonik ?» (P1); «Egon bada, egin egiten dugu, sistemaren hutsegite bat erakusten duelako.» (T4); «Albistean nabarmentzen dugu kontu hori. Oso garrantzitsua da. Emakumeak salatu bazuen eta tratu txarrak jasan bazituen lehenago*» (T5).

Testuinguruan jartzeko prozesua neurtzeko, garrantzitsua da biktimarioaren atxiloketaren berri ematea. Biktimarioaren atxiloketari buruzko aipamenak urriak dira: informazioen % 11,7an soilik agertzen baitira. Atxiloketaren berri ematen den kasu gehienetan, ikusteko moduan jartzen da artikuluan, izenburuan eta azpiizenburuan. Atxiloketei buruzko informazioak batez ere 4. eta 6. kasuetan biltzen dira, eta gainerako kasuetan oso gutxi dira.

22. TAULA. ATXILOKETA, PRENTSA IDATZIAN

	1	2	3	4	0	6	GUZTIRA
Azpiizenburua	0	0	1	2	0	2	5
Testua	0	0	1	0	0	1	1
Titulua	0	1	6	7	0	22	36
Guztira, oro har	0	1	8	9	0	25	43
GUZTIRA	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**
%	**0,0**	**0,0**	**10,1**	**39,1**	**0,0**	**37,3**	**11,7**

Iturria: Geuk egina.

Telebistako eta irratiko pieza askotan ere ez da atxiloketarik agertzen: haien erdietan ez da horri buruzko informaziorik jasotzen. Atxiloketaren berri ematen duten piezetan, ahozko narrazioaren zati izan ohi dira, eta, neurri txikiagoan, errotuluetan agertzen dira. Hedabide digitaletan argitaratutako piezetan, ohikoagoa da testuan agertzea izenburuan baino.

23. TAULA. ATXILOKETA, IRRATI ETA TELEBISTAKO BERRIETAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Ez	0	6	7	2	2	9	26	51,0
Ahozko informazioa	0	5	2	0	0	5	12	23,5
Errotuluak	0	0	1	0	0	0	1	2,0
Testua	2	0	3	1	0	2	8	15,7
Titulua	0	2	0	1	0	1	4	7,8
GUZTIRA	**2**	**13**	**13**	**4**	**2**	**17**	**51**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Elkarrizketatutako pertsona gehienek adierazi dute epaiketei eta epaiei buruzko informazioa ematen dutela, baina batzuetan epaiketaren irekierari buruzko informazioa baino ez dela ematen: «*Lehenengo egunean, bai, baina epaiketa guztiekin gertatzen zaigu: komunikabideen arazo nagusietako bat jenderik eza da. Epaiketa batera joatea da horretarako astebete pasatzea. (…). Lehenengo eta azken egunean joaten gara*» (T7).

Oraindik urriak dira aurreko hiru adierazleak: salaketaren presentzia; informazio erabilgarria edo erreferentziako telefonoak ematea, edo biktimarioaren atxiloketa esplizituki adierazten duten berrien pisua.

Era berean, adierazi behar da narrazioek gertakariak azkar eta erraz azaltzea saihesten dutela. Artikulu gehienek ez dute biktimarioaren ekintza azaltzen; artikuluen % 16k soilik ematen du motibazioren bat. Aztertutako kasuetan, biktimarioaren arazo mentalen aipamena izan da nagusia, 5. kasuari erreferentzia egiten dioten informazioen erdietan agertzen dena, baina baita 3. kasuari buruz argitaratutako 79 berrietatik 8tan ere.

Batzuetan, ekintza ez da indarkeria-prozesu batean kokatzen, biktimak aktibatutako une jakin batean baizik, banantzea edo dibortzioa hasi edo gauzatu den neurrian. Hala jasotzen da prentsak 1. kasuan argitaratutako 66 artikuluetatik 12tan edo 3. kasuko 79 artikuluetatik 8tan. Testuinguruan behar besteko kokapenik ez egoteak eta gertaerak epe laburreko ikuspegitik kontatzeak (ekintza-erreakzio gisa) ez dute uzten ikusten indarkeriaren zikloa eta haren izaera soziala –ez ustekabekoa, ez espontaneoa –, eta, aldi berean, erruduntasunaren araberako interpretazioa erraz dezake. «*Nik uste dut inoiz egin dela, edaten zuela, (…) agian ez lehen kontakizunean, baina gero, hurrengo egunean informazioa egiten jarraitzen denean eta, agian, auzokoren batekin edo senideren batekin hitz egiten dute, eta hark dio ezetz, asko edaten zutela, istilu asko zituztela, gizona mozkortuta etortzen zela beti*» (T12).

24. TAULA. MOTIBAZIO-ELEMENTUAK AIPATZEA

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Arazo mentala	1	1	8	0	19	0	29	47,5
Dibortzioa	12	5	8	0	0	4	29	47,5
Beste batzuk	2	1	0	0	0	0	3	4,9
GUZTIRA	**15**	**9**	**16**	**0**	**19**	**4**	**61**	**100,0**
%	**22,7**	**9,2**	**20,3**	**0,0**	**52,8**	**6,0**	**16,5**	

Iturria: Geuk egina.

Berri gehienek biktima hiltzeko erabilitako tresna zehazten dute, eta berrien % 48k baino ez dute informazio hori alde batera uzten edo isilean gordetzen. Izan ere, oraindik artikulu askok zehazten dute tresnen kokapena. Hala, labanen kasuan, sukaldea aipatzen da, edo asfixiaren kasuan, hamaika aldiz aipatzen da poltsa –baita zabor-poltsa ere–, eta 16 aldiz kuxina. Berrien % 7,3 bakarrik mugatzen da arma zuri batekin gertatu zela adieraztera. Xehetasun horren garrantzia honako ideia honetatik dator: esplizitazioak ez du ematen narraziorako funtsezko informazio-elementurik; aldiz, pertzepzio desberdinak daude komunikazio-modu horrek sor dezakeen «imitazio-efektuari» buruz.

25. TAULA. ERAILKETA-METODOAREN AIPAMENA, IDATZIZKO PRENTSAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Ez daki/ez du erantzuten	20	27	52	23	19	44	177	48,0
Labankadak	41	5	0	0	17	5	72	19,5
Arma zuria	0	0	0	0	1	27	27	7,3
Asfixia	0	0	27	0	0	0	27	7,3
Ibilgailuz harrapatzea	0	68	0	0	0	0	66	17,9
GUZTIRA	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Telebistei eta irratiei buruzko datuak antzekoak dira, baina tresnari buruzko informazioa ez-kutatzen den pieza kopurua handiagoa da, aztertutako 51 piezetatik 35ek ez baitute inolako informaziorik jasotzen erabilitako tresnari buruz. Hala ere, hala egiten duten artikuluetan, informazio gehigarriren bat ematen dute, prentsa idatzian gertatzen den bezala. Erabilitako objektuari erreferentzia egiten dioten 16 piezetatik 2k soilik erabiltzen dituzte kontzeptu abstraktuagoak, hala nola «arma zuria».

26. TAULA. ERAILTZEKO ERABILITAKO METODOAREN AIPAMENA, IRRATIAN ETA TELEBISTAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Ez daki/ez du erantzuten	1	4	9	4	1	16	35	68,6
Labankadak	0	0	0	0	0	2	2	3,9
Arma zuria	1	0	0	0	1	0	2	3,9
Asfixia	0	0	4	0	0	0	4	7,8
Ibilgailua (harrapatzea)	0	8	0	0	0	0	8	15,6
GUZTIRA	**2**	**12**	**13**	**4**	**2**	**18**	**51**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Egindako elkarrizketetan, komunikabideek adierazi dute zer gogoeta egiten duten albistean zer sartu behar den erabakitzeko. Hala, aipatzen dute isilean gordetzea erabakitzen duten informazioa ezagutzen dutela, «*hala nola gertaera nola izan den azaltzen duten zehaztapenak. Ez gara morboan murgiltzen behin eta berriz. Ez gara sartzen zehaztapen makabroetan*» (T1).

Beste adierazle interesgarri bat dugu, heriotza dakarren emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berrietan hausnartu beharrekoa, gertakariei buruzko informazio gehigarria, gertakari horiek testuinguruan jartzearekin zerikusirik ez duena. Horrela, ia berri guztietan ematen diren bi datu daude: familia-egoera (82) eta egoera sentimentala (172). Datu horiek ez diote funtsezko elementurik ematen informazioari, eta, aitzitik, gertakariak pasio-krimentzat jotzen errazten dute. Testuek aipatzen dutelarik genero-indarkeriako edo emakumeen aurkako indarkeriako gertakari bat, heriotza ekarri duena, jakintzat ematen da bikote-harremana dagoela edo egon dela. Xehetasun batzuk sartzeak, hala nola biktimaren eta biktimarioaren bizikidetza- edo banantze-denbora, edo iraganeko eta egungo egoera sentimental edo zibilari buruzkoak, errazago lerratzen du narrazioa pasio-krimenaren edo maitasun-harremanaren eta hausturaren aldera. Horrela, ezkutuan gera daiteke egiturazko indarkeriaren testuingurua, ziklo luzea eta ez-puntuala baita.

> *«Gauza batzuk ez ditugu behar bezala zaintzen. Batez ere, nik, egin ditugun informazio-jardunaldien ondoren, familia-egoerari edo aurrekariei buruzko xehetasunak sartu ditugu, eta agian ez dira hain beharrezkoak, baina erabili egiten ditugu. Denak balio dizulako. Ezkonduta badaude, noiztik, bikotekidea zen, edo ez baziren, zerbait zegoen haien artean. Gero, jardunaldietara joan garenean, duda egin duzu, ea hori aipatzeak ekarpenik egiten duen, garrantzitsua den ala ez».* (T1)

Maiz ematen da biktimaren helbidearen berri: aztertutako 369 berrietatik 254tan (% 68,8). Informazio hori ez da bakarrik ematen gertakaria bertan izan denean, 2. kasuan bezala. Etxebizitzaren zehaztasunak, batzuetan, atariaren eta pisuaren zenbakia izan ohi du, beste batzuetan auzoa, eta kasu gutxiagotan bakarrik azaltzen da zein herritan dagoen biktimaren etxebizitza.

TABLA 27. MENCIÓN DE DATOS ADICIONALES EN PRENSA ESCRITA

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
Helbidea	67	65	15	9	23	75	254
Adingabeak	41	69	0	0	0	25	135
Familia-egoera	28	30	0	0	0	24	82
Egoera sentimentala	29	44	38	6	7	48	172
Beste batzuk	10	1	0	0	0	0	11
GUZTIRA	**175**	**209**	**53**	**15**	**30**	**172**	**654**

Iturria: Geuk egina.

Telebistan eta irratian aztertutako 51 piezetatik bederatzik ez dute biktimari eta biktimarioari buruzko informazio gehigarririk. Gainerakoetan, prentsa idatzian gertatzen den bezala, ohikoena egoera sentimentala da, ia berri guztietan agertzen dena, 42 berrietatik 34tan (% 81). Maiz errepikatzen den beste eremu bat bizilekuari buruzko informazioa da. Batzuetan udalerria bakarrik aipatzen den arren, oso ohikoa da auzoari edo kaleari buruzko aipamenak aurkitzea, eta are gehiago esplizitatzen da etxebizitzaren irudia gaineratzen den kasuetan.

TABLA 28. MENCIÓN DE DATOS ADICIONALES EN RADIO Y TELEVISIÓN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Helbidea	1	6	2	2	2	12	25	39,7
Adina (adingabeak)	0	2	0	0	0	4	6	9,5
Kargupeko adingabeak	0	3	0	0	0	5	8	12,7
Egoera sentimentala	2	11	11	3	1	6	34	54,0
GUZTIRA	**3**	**22**	**13**	**5**	**3**	**27**	**73**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Profesionalak ez dira ados jartzen egoera sentimentalari edo familia-egoerari buruz eman beharreko informazioaz «*Garrantzitsua da ahaidetasuna*»(T6); «*eta lotura afektiboa. Uste dut kontuan izan behar dugula bikote-harremanek indarkeria mota horretara eramaten dutela, baina hori gertatzen da perbertsio morala dagoenean. Kasu honetan, gizonaren aldetik*» (T5).

Heriotza dakarren emakumeen aurkako indarkeriak hirugarren batzuetan duen eraginari bagagozkio, komunikabideen arduradunen artean uste orokorra da ez dutela lortzen informazio hori transmititzea. Adingabeen kasuan, komunikabide batzuentzako gakoa da oso zuhurrak izatea, babes-sistema altua delako kasu honetan. Beste elkarrizketa batzuetan aipatzen dute foru-aldundia dela gai horri buruzko informazio fidagarria jasotzeko iturria, eta oso jarrera hermetikoa izan ohi duela. Beste kasu batzuetan, ordea, eraginpeko beste pertsona batzuengan eragiteko beharrik ikusten ez delako da, nahiz eta, oro har, interesgarria izango litzatekeen kontakizunaren zati hori erakustea: «*Hor bai, nik uste dut kontzientziazioa falta dela*» (T12).

Gertaerak testuinguruan jartzean eta kontatzean, esaten eta idazten denak ez ezik, azalpen horiekin batera doazen irudiek ere garrantzia hartzen dute. Prentsaren analisiari dagokionez, 369 berrietan 477 argazki zeuden guztira, eta azterlan honetan aztertu dira, ez soilik kolorearen erabilerari dagokionez, baita objektuari dagokionez ere, hau da, irudiek testuinguruaren eta berrien kontaketaren barruan kontatzen dutenari dagokionez.

Emakumeen aurkako indarkeriak izaera soziala duela transmititzeari dagokionez, argazkien bosten batek herritarren gaitzespen-ekintzak erakusten ditu, eta agintari politikoak –alkateak, batzar nagusiak, Emakunde edo Arartekoa–, berriz, irudien % 2,5ean agertzen dira. Aitzitik, argazkien % 48,6 bat datoz narrazioaren polizia-izaerarekin, polizia (% 20,1), erailketaren lekua (% 17) edo biktimaren gorpua (% 1,5) erakusten baitituzte; azken hori, seigarren kasuan bereziki, bertan biltzen baitira aztertutako aldian jasotako 7 gorpu-argazkietatik 6.

29. TAULA. IDATZIZKO PRENTSAKO IRUDIEN EDUKIA

KASUAK	1		2		3		4		5		6		GUZTIRA	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
Gaitzespena	16	16,2	18	14,4	21	21,2	11	73,3	12	21,1	27	32,9	105	22,0
Polizia	30	30,3	21	16,8	18	18,2	0	0,0	13	22,8	14	17,1	96	20,1
Erailketa-lekua	16	16,2	40	32,0	7	7,1	0	0,0	9	15,8	9	11,0	81	17,0
Senideak	16	16,2	3	2,4	6	6,1	0	0,0	10	17,5	9	11,0	44	9,2
Helbidea	17	17,2	10	8,0	0	0,0	4	26,7	3	5,3	6	7,3	40	8,4
Biktimarioa	2	2,0	9	7,2	20	20,2	0	0,0	0	0,0	3	3,7	34	7,1
Omenaldia	0	0,0	15	12,0	0	0,0	0	0,0	4	7,0	0	0,0	19	4,0
Biktima	0	0,0	5	4,0	3	3,0	0	0,0	5	8,8	6	7,3	19	4,0
Epaitegiak	1	1,0	1	0,8	10	10,1	0	0,0	0	0,0	0	0,0	12	2,5
Erakundeak	1	1,0	1	0,8	10	10,1	0	0,0	0	0,0	0	0,0	12	2,5
Gorpua	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	1,8	6	7,3	7	1,5
Hileta	0	0,0	1	0,8	4	4,0	0	0,0	0	0,0	1	1,2	6	1,3
Beste batzuk	0	0,0	1	0,8	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	1,2	2	0,4
GUZTIRA	**99**	**100,0**	**125**	**100,0**	**99**	**100,0**	**15**	**100,0**	**57**	**100,0**	**82**	**100,0**	**477**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Aitzitik, epaitegiak funtsezkoak dira albistea testuinguruan kokatzeko, baina argitaratutako irudien % 2,5 baino ez dute hartzen. Beste elementu hauek ere berrikusi behar dira: bizilekuari buruzko irudiak (% 8,4) edo biktimarenak (% 4) eta haren senideenak (% 9,2); haien maiztasunak gogoeta egitea merezi du. Adibidez, 4. kasuan, 15 argazki baino ez dira argitaratu; horietatik 11 gaitzespen-egintzei zegozkien, eta 4 biktimaren etxeari.

Aztertutako telebistako 21 berrietan, 91 arrazoi desberdin identifikatu dira, guztira. Haietan, gaitzespen-ekintzak % 37,5 dira: irudien % 13,2, kalean egindako ekitaldiei dagozkie, eta % 14,3, agintariei dagozkien planoei. Hala ere, gertaeren lekuak (% 15,4), biktimaren etxeak (% 4,4), poliziak (% 13,2) eta auzotarrek (% 17,6) garrantzi handia dute oraindik telebistako irudietan. Biktimaren irudi bakarra 6. kasuan eskaini da, baina ez haren gorpua. Era berean, biktimarioaren irudi bakarra 3. kasuan erakutsi da. Atxiloketaren edo epaitegiaren irudiak, berriz, albistea testuinguruan kokatzeko elementu garrantzitsuak dira, eta aztertutako telebistako planoen % 7,7 baino ez dira.

30. TAULA. TELEBISTAKO IRUDIEN EDUKIA

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
EAEko agintariak	0	2	4	1	1	5	13	14,3
Polizia	0	5	4	0	1	2	12	13,2
Gaitzespena	1	2	5	1	0	3	12	13,2
Helbidea	0	0	3	0	0	1	4	4,4
Biktima omentzea, loreak eskainiz	0	2	0	0	0	0	2	2,2
Epaitegiak	0	0	1	0	0	3	4	4,4
Lekua	0	10	2	0	0	2	14	15,4
Erakunde feminista	0	0	0	0	0	1	1	1,1
Auzokideak	0	7	7	0	0	2	16	17,6
Biktima	0	0	0	0	0	3	3	3,3
Biktimarioa	0	0	3	0	0	0	3	3,3
Atxiloketa	0	1	2	0	0	0	3	3,3
Beste batzuk	0	3	1	0	0	0	4	4,4
GUZTIRA	**1**	**32**	**32**	**2**	**2**	**22**	**91**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Irrati eta telebisten webeko testu-informazioei dagokienez, 28 albisteetatik 18k baino ez dute sartzen irudi bat, eta horietatik zortzi poliziari edo erailketa gertatu zen lekuari dagozkio. Bi albistek testuingurutzea errazten dute, biktimarioa epaitegitik igarotzen denekoa erakusten baitute. Nabarmentzekoa da pieza horietako batek ere ez duela biktimaren argazkirik ematen, eta are gutxiago gorpuarena.

31. TAULA. IRRATI ETA TELEBISTAKO TESTU-ALBISTEETAKO IRUDIEN EDUKIA

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
Polizia	0	0	1	0	0	1	2
Gaitzespen-kontzentrazioa	1	1	0	0	1	3	6
Biktima omentzea, loreak eskainiz	0	0	0	0	0	1	1
Lekua	1	2	0	2	0	1	6
Biktimarioa	0	0	1	0	0	0	1
Biktimarioa epaitegian	0	0	2	0	0	0	2
GUZTIRA	**2**	**3**	**4**	**2**	**1**	**6**	**18**

Iturria: Geuk egina.

> *«Erantzunaren irudi instituzional asko. Kontzentrazioak, baina irudi hori egun bat geroago iristen da Edo etxekoa, gertaera izan den kalekoa, edo horrelako zerbait. Pertsonari aurpegia jartzeko tentazioa egon arren, ez jartzen saiatzen gara. Gero, hurrengo egunean, komunikabide guztietan aurkitzen duzu».* (T7)

> *«Biktimaren irudiari eragiten dioten edo biktimari kalte egiten dioten guztiak ez ditugu argitaratuko».* (T2)

«Gertakaria izan den etxearen argazkiak ez dakar ezer. Gorpuen, hileta-autoaren edo poliziak sartu eta irteten diren autoen irudi horiek saihesten ditugu … guk agentziaren edo Twitterren argazkiak ematen ditugu, baina ez edozer» (T2).

«Zuzenketak egin ditugu, eta horretan ari gara, eta mota honetako gauzak saihesten ditugu: atarian sartzea, etxe horretako atea erakustea, postontzia izen batekin agertzea. Lekua bai, bestela, oso zaila egiten zaigu. (…). Ez goaz xehetasunetara, odol-tantetara, peritua hura garbitzen … Hori guztia kanpo uzten dugu, argi dago, baina lekua? Zaila da hori saihestea». (T3)

Gaur egun, sare sozialekin, komunikabideei errazago zaie irudiak lortzea biktimak edo biktimarioak bere profiletan partekatutakoetatik, profilak publikoak izaten dira-eta, batzuetan. Horrek bikote-harremanak («maitasuna eta pasioa») narrazioetan duen pisua areagotu lezake. Biktima eta biktimarioa batera ateratzen diren irudien bolumena eta irisgarritasuna erronka zaizkio kode deontologikoari. Sare sozialetako argazkiei dagokienez, komunikabide batzuek adierazi dute ezin dituztela erabili: «*Ez, guk ezin ditugu argazki horiek erabili …*» (T1). Komeni da hau hemen gogoraraztea: sare sozialetako irudiak erabiltzeko, zintzilikatu zituenaren baimen idatzia behar da.

ITURRIAK ETA SINADURAK 5.5

Artikuluen % 47,7k iturriak aipatzen dituzte, eta, kasu batzuetan, iturri bat baino. Guztira, 427 iturri-aipamen jaso dira, aztertutako 369 artikuluetan. Beste eremu batzuetan aurrerapenak egin diren arren, auzokoak eta lekukoak dira oraindik ere gaiari buruzko informazioa emateko iturri nagusia, eta gertaera puntualari lotzen zaizkio neurri handiagoan, fenomenoaren gizarte- eta egitura-arazoaren ikuspegia bigarren mailan utziz. Auzotarrak ez dira oso fidagarriak; izan ere, hurbiltasuna transmititzen duten arren, oro har, ez dute informaziorik izaten.

Horrela, gaian adituak diren pertsonen ikuspegia biltzea errazten duten aurrerapenak egin diren arren, hedabideek kontsultatutako iturrien artean duten presentzia oraindik ere testigantza hutsezkoa da. Horrela, Emakundek (% 4,4) edo erakunde feministek (% 2,1) albisteen % 6,5ean baino ez zuten parte hartu. Gairi buruzko adituen iritziak sare sozialen bidez eskuratzea aukera bat izan daiteke komunikabideek, albistearen berehalakotasuna galdu gabe, beste iturri batzuk eman ditzaten beren informazioetan.

Deigarria da, halaber, eremu judiziala (% 3) edo poliziala (% 8) oso gutxi agertzea, batez ere irudietan duten presentziarekin alderatzen bada.

32. TAULA. IDATZIZKO PRENTSAKO INFORMAZIOEN ITURRIAK

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Elkarte feministak	7	2	0	0	0	0	9	2,1
Beste baliabide batzuk	15	8	2	4	0	15	44	10,3
Emakunde	2	6	7	3	1	0	19	4,4
Senideak	11	9	5	2	8	11	46	10,8
Judiziala	7	3	2	0	0	1	13	3,0
Erakunde publikoak	9	6	11	4	4	0	34	8,0
Udala	0	7	2	2	6	4	21	4,9
Poliziak	7	8	1	0	3	15	34	8,0
Lekukoak	34	33	21	8	21	31	148	34,7
Auzokideak	11	15	20	2	10	1	59	13,8
GUZTIRA	**103**	**97**	**71**	**25**	**53**	**78**	**427**	**100,0**
Artikuluak, iturri eta guzti	45	37	35	10	18	31	176	47,7
Artikulua, iturririk gabe	21	61	44	13	18	36	193	52,3

Iturria: Geuk egina.

Telebistetako berriei dagokienez, webeko testu formatuko argitalpenetan baino ez dira aipatzen iturriak –kamera aurrean egindako adierazpenak alde batera utzita–, eta, prentsan gertatzen den bezala, iturri ofizialek eta auzotarrek presentzia handia dute.

Komunikabideetako arduradunekin egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen da Ertzaintzak garrantzi handia duela informazio-iturri gisa; hala ere, erailketa gertatzen bada, kexu dira atzerapenak izaten direlako gertakariak kalifikatu eta informazioa banatzerakoan.

> *«Ertzaintza, baina badakizu nola funtzionatzen duen. Ozta-ozta ematen dizute informazioa. Ematen du kostatu egiten zaiela informazioa egiaztatzea… Emakunde berandu samar heldu ohi da, egia esan». «Gero daude Emakunderi egiten zaizkion deiak, Blanca Estrellari, (…) baina haren ekarpena ikuspegi apurtxo bat gogorragoa da. Emakunde bigunegia da, bigunegia».* (T1)

> *«Jendeak Blancaren gaia erabili ohi du asko [Clara Campoamor Elkartea], baina, nire ustez, gehiago zabaldu beharko litzateke».* (T12)

Indarkeriaren egiturazko izaera erakusteko, komunikabideek Emakunde eta antzeko erakundeen edo talde feministen adierazpenak behar dituzte. Hala ere, nahiz eta prentsan tarte handiagoa eman ahal dioten egiturazko arrazoiak azaltzeari, telebistan eta irratian –mugatuagoa baitute denbora– ikuspegi hori eskaintzeko aukera gutxiago dituzte.

> *«Hori egin ohi dugu, oro har, gero ohiko gaitzespen-kontzentrazioa deitzen denean, eta normalean Emakunde joaten da beti; jakina, hor bai, Emakunderekin hitz egiten duzu, edo erakunderen batekin, eta eguneko albistean sartu ezin izan dugun zati hori ematen dute».* (T10)

33. TAULA. INFORMAZIOEN ITURRIAK, IRRATIKO ETA TELEBISTAKO TESTU-ALBISTEETAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
Iturririk ez	1	6	10	3	1	8	29
Agentziak		1					1
Legebiltzarra						1	1
Polizialak		2	1	1			4
Auzokideak		1	2				3
GUZTIRA	**1**	**10**	**13**	**4**	**1**	**9**	**38**

Iturria: Geuk egina.

Beste elementu garrantzitsu bat da informazioa biltzea gertakarien lekuan: «*Harrapatzen dugunarekin: auzokideak... Dauden testigantzak jasotzen dituzu. Ez duzu dena sartzen. Gero iragazten duzu pixka bat. Batzuek hitz egiten dizute, baina ez dakite ondo zer kontatzen ari diren*» (T1). Bizilagun, lekuko eta senideengandik jasotzen duten informazioari eta bildutakoa hautatzeko lanari dagokionez, elkarrizketatutako beste batek honako hau adierazi du: «(…) *Polizia-iturriak auzokideak baino sinesgarriagoak dira, gehienetan esaten baitute ez direla ezertaz konturatu eta beste batzuetan esaten dute istiluak egon direla.*» (P1); «*Auzokoek arrisku handia dute*» (T7).

Bestalde, familiaren presentzia informazioa iturri gisa, senideak gertakarien lekuan bertan egotearen araberakoa da: «*Ez dugu asko hitz egiten, ez baitira hitz egiteko joera handikoak. (…) Ez gatzaizkie ekin eta ekin ari, eta ez litzaidake bururatuko inori telefonoz deitzea.*» *(T1). «Batzuetan, salaketa jarri bazuen, senidearen hasierako haserrea ateratzen zaizu, hau esaten baitu: 'Bagenekien hau gertatuko zela…'* (T1); «*Guk ez dugu telefonoa bilatuko. Bagoaz lekura eta kazetariak bertan aurkitzen duena*» (T4). «*Gure kasuan, guztiz saihesten saiatzen gara, ez zaizkigu bereziki gustatzen adierazpen horiek...ba oso jatorra zen, agurtzen ninduen eta egun on esaten zidan, eskaileratik zihoanean, niri horrek ez dit ezer esaten*» (T9). Beste hedabide batzuek, berriz, ez dute gaizki ikusten auzokideen iritziak sartzea, biktimarioari buruz ondo hitz egiten: «*Puff, nik batzuetan pentsatzen dut, eta zergatik ez sartu adierazpen horiek(…) izan ere, azkenean iruditzen zait, susmoa dut, hura salatzeko balio den guztia sartu behar dugula (…) eta badituzu bi auzokide esaten dutenak hantxe 5 urte daramatzatela eta inoiz ez dutela gizon horrekin arazorik izan(…); bada, horrek arazo bat sortzen dit, eztabaida bat da*» (T10).

Beste alde batetik, prentsan argitaratutako informazioen sinadurak aztertzeak aukera ematen du gaiari buruzko albisteak sinatzen dituzten pertsonen espezializazio- eta esperientzia-maila zehazteko, baita albiste horien berri emate aldera emakumeen presentzia handiagoa den ala ez zehazteko ere.

Hartara, komunikabideak berak sinatzen ditu heriotza ekarri duen emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albiste gehienak, sinadura pertsonalik zehaztu gabe, nahiz eta 369 albisteetatik 131 (% 35,5) egunkarietako bakoitzean fenomeno horiei buruz idatzi ohi duten kazetariek eginak izan.

34. TAULA. INFORMAZIOEN SINADURAK

	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Agentziak	9	7	7	4	0	7	34	9,2
Komunikabide bera	25	39	34	10	11	17	136	36,9
Ohikoa, aditua	8	37	31	5	12	38	131	35,5
Komunikabideko beste bat	24	15	7	4	13	5	68	18,4
GUZTIRA	**66**	**98**	**79**	**23**	**36**	**67**	**369**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Espezializazio-maila neurtzeko beste adierazle bat aldagarritasunaren kalkulua da. Guztira, 23 emakume kazetarik parte hartu zuten 2015 eta 2017 artean Euskadin emakumeen aurkako indarkeriak eragindako sei heriotza-kasuei buruz idatzitako 111 artikuluetan. Batez bestekoaren arabera (4,8 artikulu), espezializazio-maila txikia da arlo honetan. Zifra hori are txikiagoa da gizonen kasuan, batez bestekoa 3,5 artikulura iristen baita kazetari bakoitzeko. Hala ere, salbuespen batzuk nabarmendu behar dira: hirugarren kasuan, batez beste 10,7 informazio idatzi zituzten emakume kazetariek, eta emakume kazetari bakar batek kasuari buruzko 38 artikuluetatik 26 idatzi zituen; 2. kasuan, berriz, bi kazetarik, emakume batek (13 artikulu) eta gizon batek (12 artikulu) idatzi zituzten 49 piezetatik 25, eta, azkenik, 6. kasuan, gizonezko kazetari bat arduratu zen 17 artikuluz (43 aztertu ziren).

35. TAULA. SINADURAREN ALDAKORTASUNA

	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA
Emakumezkoak	4	6	3	4	3	3	23
Informazioak	15	29	32	8	15	12	111
Batezbestekoa	**3,8**	**4,8**	**10,7**	**2,0**	**5,0**	**4,0**	**4,8**
Gizonezkoak	6	3	4	1	3	6	23
Informazioak	15	20	6	1	7	31	80
Batezbestekoa	**2,5**	**6,7**	**1,5**	**1,0**	**2,3**	**5,2**	**3,5**

Iturria: Geuk egina.

Nolanahi ere, prentsan argitaratutako berrien sinadurak aztertu ondoren, emakumezko kazetariek 111 sinatu dituzte 199 berrietatik, % 55 ia. Banaketa hori parekotasun-printzipioen barruan badago ere, deigarria da gizonezko kazetariek 3. eta 4. kasuetan sinatutako berrien proportzio txikia.

Heriotza eragin duen emakumeen aurkako indarkeriari buruzko albisteen berriemaileen presentzia (gizonena zein emakumeena) antzekoa da: zazpi, kasu bietan. Horrela, zazpi gizonezko berriemaile aurkitu ditugu aztertutako 21 piezetan, hiru kasutan bakarka, eta bitan albistea emakumezko berriemaile edo aurkezle batekin partekatuz. Emakumezko berriemaileen kasuan, egoera antzekoa da: lau bakarka, eta batean bi emakumezko berriemaile.

36. TAULA. IDATZIZKO PRENTSAKO INFORMAZIOEN EGILEAREN SEXUA

	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Emakumezkoak	15	29	32	8	15	12	111	54,6
Gizonezkoak	15	20	6	1	7	31	80	41,2
Ez daki/ez du erantzuten	2	3	0	0	3	0	8	4,1
GUZTIRA	**32**	**52**	**38**	**9**	**25**	**43**	**199**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Elkarrizketetan argi eta garbi adierazten da gai horiek betetzeko pertsona espezializaturik ez dagoela; kasu bakar batean dago emakumezko kazetari bat, eta hari esleitzen zaio albiste horiek idaztea. Bestela, adituengana jotzen dute, batzuetan komunikabide horretatik kanpokoak, eta aholkularitza eskatzen zaie, informazio, adierazpen edo irudiren bati nola aurre egin ez dakitenean.

37. TAULA. IRRATI ETA TELEBISTAKO INFORMAZIOEN EGILEEN SEXUA

	1	2	3	5	6	GUZTIRA
Ahotsik gabe	1		1	1	1	4
Emakumezko aurkezlea		2	1		2	5
Emakumezko aurkezlea + Emakumezko berriemailea			1			1
Emakumezko aurkezlea + Gizonezko berriemailea			2			2
Emakumezko aurkezlea(k)		2	1		1	4
Emakumezko berriemailea + Gizonezko berriemailea		1	1			2
Gizonezko berriemailea		2			1	3
GUZTIRA	**1**	**10**	**13**	**1**	**9**	**21**

Iturria: Geuk egina.

Argitaratu behar denaren egokitasunari buruzko estilo-liburuak edo jarduteko eta kontrolatzeko jarraibideak egoteak azaltzen du zergatik dagoen aukera halako albisteen berri egokia emateko talde jakin bat espezializatu beharrik gabe. Langile guztien prestakuntzak eta sentsibilizazioak informazioaren transmisio egokia bermatu beharko luke. *«Kontzeptuei dagokienez, guztiak erabiltzen dugu hizkuntza bera. Batzuek barneratuago dituzte beste batzuek baino, ikastaroetara joan direlako»* (T7); «*langileak lehendik kontzientziatuta daude*» (T6). *«Kontzientziazioa da arazoa niretzat. Denok kontzeptu batzuk barneratuta izango bagenitu; guztiok jabetuko bagina arazoaren larriaz... baina hori ez da gertatzen jendartean, ezta kazetarien artean ere»* (T4).

Elkarrizketa batzuek sexuari eta adinari buruzko gaiak aipatzen dituzte, kazetariek albiste horien berri ematerakoan jarrera hobea dutela ikusteko. «*Pertsona batzuek denbora asko daramate, eta ez dute ikusten, kontzientzia falta zaielako*» (T3). «*Aldeko beste puntu bat dago, eta gizona naizen aldetik esan behar dut: (…)ko erredakzioko gehienak emakumezkoak dira, eta sentsibilitate handiagoa dute*» (T5).

BIKTIMA – BIKTIMARIOA 5.6

Biktimari eta biktimarioari buruz emandako informazioaren oreka da azterketaren beste elementuetako bat. Gai konplexua da, eta kontrako gogoetak ekartzen dituena: egokia ote den biktimak izen-abizenez aipatzea edo haien helbidea identifikatzea. Komunikabideen azterketak erakusten du alde handia dagoela biktimaren eta biktimarioaren tratamenduan, haien identifikazioari dagokionez. Horrela, 369 informazioetatik 215ek biktimaren izena eta abizena aipatzen zituzten, eta hori 30 albistetan baino ez zen gertatzen, biktimarioaren kasuan. Izan ere, prentsan, 3. kasuan baino ez da jaso biktimarioaren izena eta abizena.

> *«Izena, bai, (…) Aspaldi ez zen egiten, eta orain bai, egiten hasi gara; izan ere, batzuetan badirudi ez duzula pertsonalizatzen, nola emakume bat hil den, (…) urrunago dago entzulearentzat, eta gure funtzioa hori entzun dezatela ere bada, eta pertsonak dira hiltzen ari direnak, bizitza bat zutenak».* (T9)

> *«(…) Modan jarri zen apur bat l11n, ez da gauza bera biktima bati buruz abstraktuan hitz egitea, edo biktimaren izena aipatzea (…) haurrentzako bizkotxoak egiten gozatzen zuela (…)».* (T11)

Biktimaren tratamenduak, haren izenaren eta abizenaren aipamenari dagokionez, alde nabarmenak erakusten ditu kasuen arabera. Hala, 1. kasuan eta 4. kasuan, biktimarekiko anonimotasun handiagoa gorde da, eta gainerako kasuetan, berriz, berariazko identifikazioek, izen-abizen eta guzti, kasu bakoitzari buruz argitaratutako artikuluen % 70 gainditzen dute.

38. TAULA. IZEN-ABIZENAREKIN IDENTIFIKATZEA PRENTSA IDATZIAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	7	10,6	0	0,0	10,6	66
2. kasua	81	82,7	0	0,0	82,2	98
3. kasua	55	69,6	30	38,8	30,8	79
4. kasua	17	73,9	0	0,0	73,9	23
5. kasua	2	5,6	0	0,0	5,6	36
6. kasua	53	79,1	0	0,0	79,1	67
GUZTIRA	**215**	**58,3**	**30**	**8,1**	**50,2**	**369**

Iturria: Geuk egina.

Biktima izen-abizenaz identifikatzea ere bada telebistek eta irratiek landutako informazioen ezaugarria, eta horrela identifikatzen dituzte hiru kasutatik bitan. Aldiz, biktimarioa aipatzen bada ere, batzuetan «ustezko» terminoarekin batera erabiltzen da, eta beste batzuetan izena aipatzen da, baina ez abizenak. Kasu batean ere ez dugu aurkitu biktimarioaren identifikazio osoa.

39. TAULA. IZEN-ABIZENAREKIN IDENTIFIKATZEA, IRRATIAN ETA TELEBISTAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	2
2. kasua	10	83,3	0	0,0	83,3	12
3. kasua	8	61,5	0	0,0	61,5	13
4. kasua	2	50,0	0	0,0	50,0	4
5. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	2
6. kasua	14	77,8	0	0,0	77,8	18
GUZTIRA	**34**	**66,7**	**0**	**0,0**	**66,7**	**51**

Iturria: Geuk egina.

Adinari buruzko informazioa emateak eztabaida gutxiago sortzen du; elementu garrantzitsua izan daiteke albistea testuinguruan kokatzeko eta adin desberdinetan (gazteak, pertsona helduak edo adinekoak) gertatzen direla ikusi ahal izateko, baina agian nahikoa izango litzateke kategorizazio hori egitea adin zehatzik eman gabe. Adinari buruzko informazioa argitaratzean ez dago alde handirik biktimaren eta biktimarioaren arteko orekari dagokionez: 136 informazio (% 34,9) biktimaren kasuan, eta 118 (% 30,3) biktimarioaren kasuan.

40. TAULA. ADINA AIPATZEA IDATZIZKO PRENTSAKO INFORMAZIOETAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	41	62,1	34	51,5	10,6	66
2. kasua	36	36,7	12	12,2	24,5	98
3. kasua	32	40,5	11	13,9	26,6	79
4. kasua	10	43,5	13	56,5	-13,0	23
5. kasua	25	69,4	16	44,4	25,0	36
6. kasua	33	49,3	8	11,9	37,3	67
GUZTIRA	**177**	**48,0**	**94**	**25,5**	**22,5**	**369**

Iturria: Geuk egina.

Datuak antzekoak dira irratian eta telebistan ere, adinari dagokionez ere ez baitago alderik biktimaren eta biktimarioaren tratamenduari dagokionez. Informazio esanguratsua da kasuaren arabera: 2. kasuan, 12 piezetatik 7k aipatzen dute biktimarioaren adina, eta 13tik 4k, berriz, 3. kasuan.

41. TAULA. ADINA AIPATZEA IRRATI ETA TELEBISTAKO INFORMAZIOETAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	1	100,0	0	0,0	100,0	2
2. kasua	0	0,0	7	70,0	-70,0	12
3. kasua	4	30,8	1	7,7	23,1	13
4. kasua	1	25,0	0	0,0	25,0	4
5. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	2
6. kasua	1	11,1	0	0,0	11,1	18
GUZTIRA	**7**	**13,7**	**8**	**15,7**	**26,9**	**51**

Iturria: Geuk egina.

Nazionalitatearen edo jentilizioaren kasuan, aldiz, alde handiagoa aurki daiteke; izan ere, datu hori 162 informaziotan (% 43,9) aipatzen da biktimaren kasuan, eta 37 berritan (% 10) biktimarioaren kasuan. Alde horren arrazoia izan daiteke biktimak protagonismo handiagoa izan ohi duela albisteetan, eta jentilizioak erabiltzen direla hura aipatzean.

42. TAULA. NAZIONALITATEA EDO JENTILIZIOA, IDATZIZKO PRENTSAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	37	56,1	34	51,5	4,5	66
2. kasua	44	44,9	1	1,0	43,9	98
3. kasua	24	30,4	0	0,0	30,4	79
4. kasua	5	21,7	2	8,7	13,0	23
5. kasua	14	38,9	0	0,0	38,9	36
6. kasua	38	56,7	0	0,0	56,7	67
GUZTIRA	**162**	**43,9**	**37**	**10,0**	**33,9**	**369**

Iturria: Geuk egina.

Alde hori areagotu egiten da telebistek eta irratiek ekoitzitako informazioaren kasuan. Izan ere, biktimarioaren kasuan ez dago nazionalitateari edo jentilizioari buruzko erreferentziarik, 1. kasuan izan ezik; biktimari dagokionez, berriz, aztertutako 51 piezetatik 16tan ematen da datu hori.

43. TAULA. NAZIONALITATEA EDO JENTILIZIOA, IRRATIAN EDO TELEBISTAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	1	50,0	1	50,0	0,0	2
2. kasua	2	20,0	0	0	20,0	12
3. kasua	5	38,5	0	0	38,5	13
4. kasua	1	25,0	0	0	25,0	4
5. kasua	1	50,0	0	0	0,0	2
6. kasua	7	38,9	0	0	22,2	18
GUZTIRA	**16**	**31,4**	**1**	**2,0**	**26,3**	**51**

Iturria: Geuk egina.

Hala ere, lanbideari dagokionez, gai horri buruzko informazioa ematen duten artikuluak ohikoagoak dira biktimarioari buruzko datuak aipatzean. Hala, lanbideari buruzko informazioa 35 albistetan eman da (% 9,5) biktimaren kasuan, eta 56tan (% 15,2) biktimarioaren kasuan, prentsa idatzian argitaratutako berrietan.

Ikus-entzunezko hedabideetan egindako pieza gehienek ez dute biktimaren edo biktimarioaren lanbideari buruzko informaziorik jasotzen. Bi kasutan baino ez dugu aurkitu datu hori: 2.ean eta 4.ean. Telebistek eta irratiek idatzizko prentsako albisteen ereduari jarraitzen diote, eta ohikoagoa da biktimarioaren lanbideari buruzko informazioa biltzea biktimarena baino, nahiz eta informazio horren presentzia, oro har, urria den eta alde handirik ez dagoen.

44. TAULA. LANBIDEA AIPATZEA PRENTSA IDATZIAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	66
2. kasua	1	1,0	0	0,0	1,0	98
3. kasua	11	13,9	9	11,4	2,5	79
4. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	23
5. kasua	5	13,9	5	13,9	0,0	36
6. kasua	18	26,9	42	62,7	-35,8	67
GUZTIRA	**35**	**9,5**	**56**	**15,2**	**-5,7**	**369**

Iturria: Geuk egina.

Elkarrizketetan datu horiek berresten dituzte: *«Lehenik eta behin, emakumearekiko harremana, bigarren garrantzitsuena, salaketarik edo aurretik zerbait egon den, emakumearekin edo beste bikotekide batzuekin duen egoera. Gainerakoena osagarria da. Hurrengo paragrafoetan, zer lanbide edo ogibide zuen, nongoa zen. Adina, bai»* (T1). *«Adina, salaketa jarri zuen ala ez, jatorria, seme-alabak, beste bikotekide batzuk izan zituen, ingurunean ezaguna zen»* (T12). Ia elkarrizketa guztietan aho batez berresten dute biktima biktimarioaren aurretik jarri beharra; teletipoek eta Segurtasunetik iristen diren informazioak atxiloketa aipatzen dute lehenik, baina komunikabideetan, ordea, buelta ematen zaio kontakizunari, ez dira argitaratzen jasotako modu berean. *«Guk teletipoekin lan egiten dugu, eta, bai, saiatzen gara haiek iraultzen. Irakurtzen hasten zara, eta ikusten duzu ez zaiola garrantzirik ematen, edo justifikatu egiten dela»* (T2).

45. TAULA. LANBIDEA AIPATZEA IRRATI ETA TELEBISTAN

	BIKTIMA		BIKTIMARIOA		DISTANTZIA	GUZTIRA
	KOP.	%	KOP.	%	%	KOP.
1. kasua	1	50,0	0	0,0	50,0	2
2. kasua	1	8,3	1	8,3	0,0	12
3. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	13
4. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	4
5. kasua	0	0,0	0	0,0	0,0	2
6. kasua	1	5,5	4	22,2	-16,7	18
GUZTIRA	**2**	**3,9**	**5**	**9,8**	**-6,1**	**51**

Iturria: Geuk egina.

Biktimari eta biktimarioari buruz ematen diren datuei dagokienez, elkarrizketatutako komunikabide guztiak ados daude biktimarioari buruzko informazio asko ematea saihestu behar delakoan, justifikazioan sakondu baitezakete: «*Arrazoi asko emanez gero pertsona batek beste pertsona bat erailtzeko zergatiaz, pertsona horrek egin duena ulertzeko argudioak bilatzea bezala da, nolabait. Ez zait gustatzen erasotzailea justifikatzea, ez eta norbaitek nik kontatzen dudan zerbaitengatik justifikatzea ere*» (T7). Hala ere, ados daude biktimari buruzko informazioa eman behar dela esatean, haren bizitza eta bizi-historia ezagutzeak enpatia sor baitezake. «*Niri gustatzen zait enpatizatzea, inoiz ez familiaren aurka, haren bizitza facebooken ikertu gabe, norekin joan zen oporretan ikusteko edo; hori xehetasun handiegia da, baina bai erakustea bizitza bat zuela eta zapuztu egin diotela*» (T7). «*Biktimaren eta eraildako pertsonaren historia gehiago kontatzea gustatuko litzaidake, baina ongi, duintasunez, baina ongi, historia bat kontatuz eta horrela*» (T12).

Informazioetan jasotako iritziei dagokienez, 369 berrietatik 115ek ez dute inolako iritzirik jasotzen; gainerako 254 piezetan, berriz, guztira 489 jarrera jasotzen dira. Haietatik, % 43,4 biktimaren alde, % 13,5 biktimarioaren aurka, eta % 8,9 biktimarioaren aldeko iritziekin, bereziki 3. kasuan eta 5. kasuan.

46. TAULA. IRITZIEN JOERA, IDATZIZKO PRENTSAKO INFORMAZIOETAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Batere ez	35	38	17	4	8	13	115	31,2
Biktimarioaren aurkakoak	0	3	30	0	0	33	66	13,5
Adituenak	21	41	36	18	20	42	178	36,4
Biktimaren aldekoak	29	52	44	15	28	44	212	43,4
Biktimarioaren aldekoak	3	0	18	0	11	1	33	6,7
GUZTIRA	**53**	**96**	**128**	**33**	**59**	**120**	**489**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

Irrati eta telebistako informazioek transmititzen dituzten iritziak ez dira prentsa idatzirako jasotakoen oso bestelakoak. Horrela, aztertutako 51 albisteetatik inolako iritzirik jasotzen ez zuten 9ak salbuetsita (% 17,6), gainerakoek biktimarioaren aurkako iritziak (% 36,4) eta biktimaren aldekoak (% 26,3) biltzen dituzte. Pieza bakar batean aurkitzen dugu biktimarioaren aldeko jarrera, 6. kasuan.

47. TAULA. IRITZIEN ZENTZUA, IRRATI ETA TELEBISTAKO INFORMAZIOETAN

KASUAK	1	2	3	4	5	6	GUZTIRA	%
Batere ez	1	3	4	0	0	1	9	17,6
Adituenak	1	5	8	4	2	16	36	36,4
Biktimarioaren aurkakoak	1	8	5	4	2	16	36	36,4
Biktimaren aldekoak	0	1	6	2	1	16	26	26,3
Biktimarioaren aldekoak	0	0	0	0	0	1	1	1,0
GUZTIRA	**2**	**14**	**19**	**10**	**5**	**49**	**99**	**100,0**

Iturria: Geuk egina.

6

ONDORIOAK

Aztertu ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko erreferentziazko hedabide nagusiek argitaratutako 369 informazio, 2015-2017 aldian heriotza ekarri zuen emakumeen aurkako indarkeriaren 6 kasuei buruzkoak, eta ondorio batzuk atera daitezke, oinarritzat hartuta *Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako Dekalo*goa, hemen ezarria: *Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa*, Begira Batzordearena eta Emakunderena.

Hala, oro har, EAEko komunikabideek egokiro izendatzen dituzte kasu horiek, mota honetako terminoak erabiliz: «*emakumeen aurkako indarkeria*» (% 31,8) edo «*indarkeria matxista*» (% 33,1). Hala ere, nahiz eta gutxiengoa izan, lau kasuetatik batean erabilera desegokiak aurki daitezke, hala nola «*erailketa*» –genero estrukturala aipatu gabe– (% 19,7) edo «*krimena*» (% 5,6).

EAEko hedabideek lan egokia egiten dute kasu horiek testuinguruan kokatzeko. Izan ere, kasuen % 6,7an soilik agertzen dira informazioak Gertaerak atalean, eta horrek fenomeno isolatua dela adieraz lezake; aldiz, % 38,9 Gizartea atalean agertzen dira, eta % 31,0 Tokiko Berriak atalean.

EAEko hedabideek gizartea sentsibilizatzeko egiten duten lana informazio zabala ematearen bidez ere gauzatzen da: aztertutako 6 kasuetatik sortutako 57 albiste agertu ziren azalean egunkari inprimatuetan (aztertutako 6 kasuek sortuak), eta 23 editorial-testu idatzi ziren. Informazio horiei eskaintzen zaien hedapena horren adibide ona da; izan ere, albisteen % 46,2k orriaren

Hala ere, EAEko komunikabideek hobetzeko tarte handiagoa dute indarkeriaren testuingurua eta kausak azaltzeari dagokionez. Kasu gutxi batzuetan bakarrik aipatzen dira aurretiko salaketak (% 12,6) edo babes-neurriak (% 3,8), eta informazioen % 4,6k soilik ematen du dauden laguntza-telefonoen berri.

Atal honetan, bereziki esanguratsua da EAEko komunikabideek sistematikoki betetzen ez dutela gomendio bat, hots, eraildako emakumeen identifikazio zuzena edo zeharkakoa ahalbidetzen duen daturik ez eskaintzea, zeinaren helburua baita indarkeria horren biktima guztien eskubide guztiak betetzen direla bermatzea. Aitzitik, komunikabideek izen-abizenekin identifikatzen dituzte informazioen % 56,7 esanguratsu batean, % 19,2k inizialak bakarrik argitaratzen ditu, eta % 19,2k identifikatzen laguntzen duen elementu garrantzitsuren bat ematen du. Informazioen % 4,9an soilik ez da biktimari buruzko daturik argitaratzen.

Kode deontologikoak adierazten duenez, lanbidea, nazionalitatea eta antzeko datuak interes orokorrerako soilik eman behar dira, eta EAEko komunikabideek beren informazioen % 34,9an sartzen dute biktimaren adina, % 33,1ean nazionalitatea edo jentilizioa, eta % 5,9an lanbidea.

Erasotzaileei buruzko informazioak, kasu puntualetan izan ezik, errespetatu egiten du informazioetan indarkeriazko portaera zuritzeko edo arintzeko elementurik ez sartzeko gomendioa. Kasuen % 84,9k ez du mota horretako erreferentziarik jasotzen. Salbuespenen bat egon daiteke, hala nola dibortzioa aipatzea 1. kasuko informazioen % 18,1ean, edo biktimarioaren egoera mentala 5. kasuko informazioen % 51,9an.

EAEko hedabideek kasuen informazio-jarraipena egiten laguntzen dute, baita ere, gaitzespen-adierazpen eta -kontzentrazioen eta prozesu judizialen berri emanez.

Hala eta guztiz ere, oraindik badago hobetzeko tartea iturrien erabileran, hiru informaziotik batek bakarrik baitu informazio-iturri aditurik (% 32,8). Iturri ofizialetatik jasotako datuak –adi-

bidez, Eusko Jaurlaritza eta udalak (% 36,4) edo polizia-kidegoak (% 30,6)– ugariak izan arren, albiste askoren iturria biktimaren familia (% 27,8) eta auzokideak (% 22) dira. Azken kasu horretan, komunikabideek tentuz egin behar dute lan; izan ere, adituak ez diren iturri horiek emakumea berriz ere ez biktimizatzeko moduan erabili behar dira, erasotzailearen jarduerak ez justifikatzeko moduan.

7

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN TRATAMENDUARI BURUZKO DEKALOGOA BETETZEA

Emakumeen aurkako indarkeriaren informazio-tratamendurako dekalogoak, lehenengo puntuan, gomendio hau ezartzen du: «*Terminologia egokia erabiltzea emakumeen aurkako indarkeriaren berri emateko*», eta, horretarako, mota honetako kontzeptuak proposatzen ditu: «*genero-indarkeria*», «*indarkeria matxista*» edo «*gizonek emakumeen aurka baliatzen duten indarkeria*». Idatzizko prentsaren azterketak erakusten duenez, berrien % 66k gertakariei buruz hitz egiten du kontzeptu horiek erabiliz hasieratik, eta 388 aldiz aipatzen dira kasuen informazio-tratamenduan zehar. Gainera, Dekalogoak desegokitzat jotzen ditu «*etxeko indarkeria*», «*familia-indarkeria*», «*familia barrukoa*» edo «*bikotekoa*» kontzeptuak, eta ez dugu halako definiziorik aurkitu. Beraz, gomendio hori neurri handi batean bete dela azpimarra daiteke.

Dekalogoaren bigarren puntuak, bere aldetik, testuinguruan kokatzea azpimarratzen du, hau da, albisteak argi eta garbi erakustea ez dela gertakari isolatu bat, baizik eta emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten etengabeko prozesu baten barruko beste gertaera bat. Ildo horretan, adierazi beharko litzateke zer den emakumeen aurkako indarkeria, zein diren indarkeria hori identifikatzeko gakoak edo zer egoera duten indarkeria hori pairatzen duten beste pertsona batzuek, hala nola emakume horien seme-alabek. Oro har, informazioen testuingurua txikia da, eta gertaera puntualaren aurretik indarkeriazko elementu gutxi aipatzen dira, hala nola salaketak dauden ala ez, edo biktimei laguntzeko telefonoari erreferentzia gutxi egiten zaizkio.

Hirugarren puntuan, Dekalogoak biktimari buruzko informazioa aipatzen du, eta adierazten du hura zuzenean edo zeharka identifikatzeko aukera ematen duten datuak saihestu behar direla, eta interes orokorrekoak baino ez direla sartu behar. Hala ere, prentsa idatziko 369 informazioetatik 215etan (% 58,3) eta irrati eta telebistako 51 informazioetatik 34tan (% 66,7), biktima izen-abizenarekin identifikatzen da.

Halaber, Dekalogoak adierazten du nazionalitateari, lanbideari edo hezkuntza-mailari buruzko datuak interes orokorraren eretzean baino ez direla eman behar. Aitzitik, idatzizko prentsako albiste askok informazioa ematen dute biktimaren adinari buruz (% 48), nazionalitateari edo jentilizioari buruz (% 43,1), eta lanbidea ez da hainbeste aipatzen (% 9). Datu horien presentzia txikiagoa da irratiek eta telebistek ekoitzitako berrietan. Hala, adinari (% 13), nazionalitateari edo jentilizioari (% 31,4) eta lanbideari (% 3,9) buruzko datuak ez dira herenera iristen komunikabide horietako berrien artean.

Erasotzaileari edo biktimarioari dagokionez, Dekalogoak adierazten du ez dela inola ere zabalduko erasotzailearen daturik, zuzenean identifikatu ahal izateko, eta adinari, lanbideari edo nazionalitateari buruzko datuak testuinguruan kokatuko direla. Prentsa idatzian argitaratutako informazioen % 8,1ak erasotzailearen izena eta abizena jasotzen ditu, baina hori ez da gertatzen aztertutako irrati eta telebistako berrietan. Gainerako datuei dagokienez, adinari buruzko aipamenak nabarmentzen dira: idatzizko prentsako berrien % 25,5ak aipatzen du –% 15,7k irratian eta telebistan–. Lanbideak presentzia txikiagoa du –% 15 prentsa idatzian eta % 9,9 irratian eta telebistan–, eta are txikiagoa nazionalitateak, % 10 eta % 2, hurrenez hurren.

Erasotzailearen kontakizuna emakumearen kontakizunaren gainetik jarri behar ez delakoari dagokionez, Dekalogoaren laugarren puntuan aipatzen baita, biktimari eta biktimarioari buruzko informazio gehigarria jasotzen duten berrien proportzioa konparatuz ikus daiteke hori, baita haiei buruz ematen diren iritziak aztertuz ere. Horrela, prentsa idatzian jasotako iritzien % 43,4k biktimaren aldeko jarrera erakusten du, eta % 13,5ak biktimarioaren aurkako jarrera. Irrati eta telebistako informazioetan, datua alderantzizkoa da: % 17,6 biktimaren aldekoa

eta % 36,4 biktimarioaren aurkakoa. Erasotzailearen aldeko jarrera oso txikia da prentsa idatzian (% 6,7) eta irratian eta telebistan (% 1).

Dekalogoaren laugarren puntuak errugabetze-deklarazioak saihestea ere aipatzen du. Albisteen % 16k soilik azaltzen dute motibazioa –ia kasuen erdietan, buruko arazoei buruzko aipamenak–, neurri handi batean 5. kasuan kontzentratuta. Prentsak 1. kasuan argitaratutako 66 informazioetatik 12tan aipatzen da dibortzioa edo banaketa, edo 3. kasuaren 79etatik 8tan. Testuinguruan behar besteko kokapenik ez egoteak eta gertaerak epe laburraren ikuspegitik kontatzeak (ekintza/erreakzio gisa) indarkeriaren zikloaren pertzepzioa eta haren izaera soziala –ez ustekabekoa, ezta espontaneoa ere– hutsaltzen dute, eta, aldi berean, erruduntasun-terminoetan interpretatzen lagun dezake.

Bestalde, kasuaren inguruabarrei buruzko informazioa dekalogoaren bosgarren puntuan jasotzen da, eta hau eskatzen du: ekintzei buruzko informazioa ematea, indarkeria continuum gisa erakusteko moduan. Salaketak, aurretik egon diren ala ez adierazteko, idatzizko prentsako berrien % 14,2an eta irratiko eta telebistako berrien % 9,8an aipatzen dira. Justiziak hartutako neurriei buruzko aipamenik ere ez da egiten ia (urruntze-agindua, esaterako), eta 4. kasuan, prentsa idatzian kasuari buruzko 23 berrietatik 8tan soilik aipatzen dira, eta 4 berrietatik 2tan, irratian eta telebistan.

Seigarren puntuan, Dekalogoak kasuen amaierara arteko jarraipenari egiten dio erreferentzia, hau da, kasuaren informazio-estaldura mantentzea epaiak argitaratu arte. Elkarrizketatutako pertsona gehienek adierazi dute albistearen jarraipen judiziala egiten dutela, baina aztertutako informazioetan txikiagoa izan da epaien eta, oro har, izapide judizialaren presentzia.

Emakumeen aurkako indarkeria ezagutzen lagunduko duen informazio osagarria eskaintzeko premiari dagokionez, Dekalogoaren zazpigarren puntuan aipatzen baita, urtean zehar eraildako emakumeen kopurua bakarrik eman ohi da datu estatistikoen kasuan. Komunikabide batzuek, hala ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterketa sakonagoak egiten dituzte noizean behin, gertaera puntualekin zuzenean lotuta ez daudenak: ez ditugu azterlan honetan neurtu. Komunikabideetan emakumeen aurkako beste indarkeria-mota bat ez agertzeak eta erailketa-kasuak soilik ikusarazteak fenomenoaren egiturazko izaera ezkutatzea eragin dezake.

Dekalogoaren zortzigarren puntua ziklo horretan dauden beste emakume batzuentzat baliagarria izan daitekeen informazio erabilgarria argitaratzeari buruzkoa da. Hedabideek erregulartasunez egiten dutela adierazi arren, informazio horrek presentzia mugatua du aztertutako artikuluetan. Soilik idatzizko prentsako artikuluen % 10,9k eta telebistako eta irratiko piezen % 11,8k egiten dute.

Iturri adituak erabiltzeko gomendioa dekalogoaren bederatzigarren gomendioa bada ere, komunikabideek oraindik modu mugatuan erabiltzen dituzte, Emakunderen edo erakunde feministen presentzia iturrien % 6,5era baino ez da iristen. Datu hori ez dator bat Kodeak zuhurtziaz erabiltzea gomendatzen dituen beste batzuekin, hala nola lekukoak (% 34,8), auzokoak (% 13,8) edo familiak (% 10,8).

Azkenik, Dekalogoak emakumeen aurkako indarkeria agerian jartzen eta salatzen laguntzen duten ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea gomendatzen du. Gaitzespenak, bai kalean bai agintarien aldetik, ikus-entzunezkoetan agertzen dira (% 13,5), manifestazioak eta kontzentrazioak erakusten baitituzte, eta zifra hori % 33tara igotzen da webguneko testu-informazioen kasuan. Idatzizko prentsaren kasuan, argitaratutako argazkien % 20 kondena-egintzak dira.

48. TAULA. EAEKO HEDABIDEEK DEKALOGOA NORAINO BETETZEN DUTEN: BALORAZIOA

DEKALOGOAREN PUNTUAK	BETETZE-MAILA
1. Terminologia egokia erabiltzea	Handia
2. Albistea testuinguruan sartzea	Txikia
3. Biktimari buruzko informazioa	Txikia
4. Erasotzaileri buruzko informazioa	Ertaina
5. Zirkunstantziei buruzko informazioa	Ertaina
6. Kasuen jarraipena	Ertaina
7. Informazio osagarria	Txikia
8. Informazio erabilgarria	Ertaina
9. Informazio-emaile adituak	Txikia
10. Baliabide grafikoak eta ikus-entzunezkoak	Ertaina

Iturria: Geuk egina.

8

GOMENDIOAK

EAEko komunikabideek, oro har, behar bezala tratatzen dute emakumeen aurkako indarkeria.

Salbuespenak salbuespen, ekintza horiei ematen zaien izena egokia da, eta informazio-estaldurak gizartea gaiari buruz sentsibilizatzen laguntzen du, bai eta haien izaera estrukturala eta ez-isolatua erakusten ere.

Aitzitik, hobetu beharreko zenbait arlo landu behar dira, hala nola biktimaren anonimotasuna errespetatu beharra –komunikabide guztiek sistematikoki urratua–, testuinguruari buruzko informazio gehiago eskaintzea (laguntza-telefonoak) eta indarkeriaren kausak azaltzea. Halaber, arreta berezia jarri behar da adituak ez diren iturriak erabiltzean, bereziki auzokoak edo ageriko egokitasuna ez duten beste iturri batzuk.

Elkarrizketatutako komunikabideetako profesionalek kasu horiei ematen dieten estaldura maila «nahiko» altu batekin edo «oso ondo» baxu batekin kalifikatzen dute, baina arlo horretako prestakuntza espezifikoa jasotzea interesgarria dela onartzen dute. Dekalogoan jasotako gomendioak eztabaidagai dira, baina kezka-iturri batzuk onartzen dira, hala nola irudien, datuen eta abarren erabilera, jarraibide argiak garatzera bultzatzen dutenak.

Azkenik, profesionalek administrazio publikoei eskatzen diete, batez ere Ertzaintzari, Emakunderi eta aldundiei/udalei, datuak azkarrago eman ditzatela eta informazioa eskuragarriago jar dezatela. Horri dagokionez, adituen eskuragarritasuna areagotu liteke, adibidez, sare sozialen bitartez. Izan ere, elkarrizketa batzuetan jasotzen den bezala, elkarte feministek eta Emakundek transmititzen dute hobekien emakumeen aurkako muturreko indarkeria mota hori egiturazkoa eta etengabea dela.

B

BIBLIOGRAFIA

Alatz, Z. (2006). «News coverage of violence against women: the turkish case», *Feminist Media Studies,* 6(3):295-314.

Altheide, D.L. & Schneider, C.L. (2013). *Qualitative Media Analysis*. London: Sage.

Anastasio, P.A. & Costa, D. M. (2004). «vi», *Sex Roles*, 51 (9-10), 535-542.

Bach, M.; Altés, E.; Gallego, J.; Plujà, M. & Puig, M. (2000). *El sexo de la noticia. Reflexiones sobre el género en la información y recomendaciones de estilo*. Bartzelona: Icara.

Bandrés, E. (2010). «Hacia una eliminación total de los feminicidios. Propuestas audiovisuales contra este tipo de violencia en Brasil y México». *Revista Comunicaçao e informaçao*, 13 (2).

Bandrés, E. (2011). «Propuesta para el Tratamiento Eficaz de la Violencia de Género», *Vivat Academia*, 116, 19-39.

Benedict, H. (1992). *Virgin Or Vamp: How the Press Covers Sex Crimes*. New York: Oxford University Press.

Berns, N. (1999). «My problem and how I solved it»: Domestic violence in women's magazines, *Sociological Quarterly*, 40 (1), 85-108.

Breen, M.D.; Easteal, P. & Holland, K. (2017). «Exploring Australian journalism discursive practices in reporting rape: The pitiful predator and the silent victim», *Discourse and Communication*, 11(3), 241-258.

Bullock, C.F. (2007). «Framing domestic violence fatalities: coverage by Utah newspapers», *Women´s Studies in Communication*, 30(1), 34-63.

Bullock, C.F. (2008). «Official sources dominate domestic violence reporting», *Newspaper Research Journal*, 29 (2), 6-22.

Bullock, C.F. & Cubert, J. (2002). «Coverage of domestic violence fatalities by newspapers in Washington state», *Journal of Interpersonal Violence*, 17 (5), 475-499.

Carter, C. (1998). «When the Extraordinary becomes Ordinary: Everyday news of sexual violence». Hemen: Cynthia Carter, Gill Branston eta Stuart Allan (eds.), *News, gender and power*, New York: Routledge, 219-233.

De Frutos, R.A. (2015). «Medios e Índices de Evaluación Inclusivos: examen de los indicadores de género y medios de comunicación». Hemen: Inmaculada Postigo eta Ana Jorge, *El tratamiento de la violencia contra las mujeres*, Sevilla: Andaluziako Emakumearen Institutua.

De Miguel, Ana (2007). «El proceso de redefinición de la violencia contra las mujeres: de drama personal a problema político», *Daimon: Revista de filosofía*, 42, 71-82.

Easteal, P., Holland, K. & Judd, K. 2015. «Enduring themes and silences in media portrayals of violence against women», *Women´s Studies International Forum*, 48, 103-113.

PORRES, I., ODRIOZOLA, M. 2018. «Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea». *Txostenak eta Ikerketak*, Vitoria-Gasteiz: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.

FAGOAGA, C. (1994). «Comunicando violencia contra las mujeres». *Estudios sobre el mensaje periodístico*, 1, 67-90.

FAGOAGA, C. (1999). *La violencia en medios de comunicación: maltrato en la pareja y agresión sexuada*. Madril: Emakumearen Zuzendaritza Nagusia.

FAIRBAIRN, J. & DAWSON, M. (2013). «Canadian news coverage of intimate partner homicide: analyzing changes over time», *Feminist Criminology*, 8(3), 147-176.

FAIRCLOUGH, N. (2003). *Analysing Discourse: Textual Analysis For Social Research*. London: Routledge.

GILCHRIST, K. (2010). «Exploring differences in Canadian local press coverage of missing/ murdered Aboriginal and White women» *Feminist Media Studies*, 10 (4), 373-390.

GILLESPIE, L.K.; Richards, T.N.; Givens, E.M. & Smith, M.D. (2013). «Framing Deadly Domestic Violence: Why the Media's Spin Matters in Newspaper Coverage of Femicide», *Violence Against Women*, 19 (2), 222-245

GIUS, C. & LALLI, P. (2014). «I loved her so much, but i killed her». Romantic love as a representational frame for intimate partner femicide in three italian newspapers», *Journal for Communication Studies*, 7(2), 53-75.

HAWLEY, E., CLIFFORD, K. & KONKES, C. (2017). «The «Rosie Batty Effect» and the framing of family violence in Australia News Media», *Journalism Studies*.

HILL, P. (2011). «*Domestic Violence in Men´s and Woman´s magazines: woman are guilty of choosing the wrong men, Men are no guilty of hitting woman*», Women´s studies in Communication, 34(2), 139-160.

JONTES, D. & B. Luthar (2015). «Epistemology of journalistic rituals: the case of domestic violence, *Antroopological Notebooks*, 21 (3), 21-37.

LAUDANO, C.N. (2010). «Mujeres y Medios de Comunicación: reflexiones feministas en torno a diferentes paradigmas de investigación». Hemen: Sandra CHAHER & Soia SANTORO (bil.), *Las palabras tienen sexo. Herramienta para un periodismo de género*. Buenos Aires: Artemisa, 40-54.

LLEDÓ, E. eta DEL RÍO, R. (koord.) (1999). *Cómo tratar bien a los malos tratos. Manual de Estilo para los medios de comunicación*. Sevilla: Andaluziako Emakumearen Institutua.

LLEDÓ, E. (2003). «Recomendaciones para el tratamiento de la violencia contra las mujeres en los medios de comunicación». Hemen: María del Mar RAMÍREZ (koord.) *Medios de Comunicación y Violencia contra las mujeres*, Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.

LÓPEZ-DÍEZ, P. (2002). *Mujer, Violencia y Medios de Comunicación*, Madril: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.

López-Díez, P. (2007). ¿Cómo tratan la violencia de género los medios de comunicación? Hemen: Juan F. Plaza eta Carmen Delgado, *Género y comunicación*, Madril: Fundamentos, 73-99

Loseke, D.R. (1989). «Violence is violence…or is it? The social construction of «wife abuse» and public policy». Hemen: J. Best (ed.), *Images of issues*, New York: Aldine de Gruyter.

Menéndez, M.I. (2010). *Representación Mediática de la Violencia de Género. Análisis de la Prensa Balear (2004-2008).* Palma Mallorcakoa: Universitat de les Illes Balears.

Meyers, M. (1997). *News Coverage of Violence against Women*. Engendering blame. Londres: Sage.

Radford, J. & Russell, D.E.H. (1992). *Feminicide: the politics of woman killing*. New York: Twayne.

Radl Philipp, R.M. (2011). «Medios de comunicación y violencia contra las mujeres, elementos de violencia simbólica en el medio televisivo», *Revista latina de sociología*, 11, 156-181.

Ramirez Alvarado, M.M. (2003). *Medios de comunicación y violencia contra las mujeres*. Sevilla: Emakumearen Institutua.

Reckdenwald, A. & Parker, K. (2012). «Understanding the change in male and female intimate partner homicide over time», *Feminist Criminology*, 7(3), 167-195.

Richards, T.N.; Gillespie, L. & Smith, M.D. (2011). «Exploring news coverage of femicide: Does reporting the news add insult to injury?» *Feminist Criminology*, 6 (3), 178-202.

Richardson, J.E. (2007). *Analysing Newspapers: An Approach from Critical Discourse Analysis*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.

Rodríguez, R. (2008). «Del Crimen Pasional a la Violencia de Género: Evolución y su Tratamiento Periodístico», *Ámbitos: Revista Internacional de Comunicación*, 17, 171-188.

Sanchez-Aranda, J.J.; Berganza, R. & García, C. (2003). *Mujer publicada, mujer maltratada. Libro de estilo para informar en los medios de comunicación sobre la mujer*. Iruñea: Nafarroako Emakumearen Institutua.

Simons, M. & Morgan, J (2017). «Changing Media Coverage of violence against women: the role of individual cases and individual journalists», *Journalism Practice*, 6, 1-18.

Sutherland, G.; McCormack, A. & Pirkis, J. (2016). *Media Representations of Violence against Women and Their Children: Final Report.* Sydney: NSW, ANROW.

Taylor, R. (2009). «Slain and slandered: A content analysis of the portrayal of femicide in crime news», *Homicide Studies*, *13*(1), 21-49.

Vallejo, C. (2005). *Representación de la Violencia contra las Mujeres en la Prensa Española (El País/ El Mundo) desde una Perspectiva Crítica de Género. Un Análisis Crítico del Discurso Androcéntrico de los Medios*, Bartzelona: Universidad Pompeu Fabra, (doktorego-tesia) http://www.dissoc.org/recursos/tesis/Tesis_Vallejo.pdf

Zoonen, L. (1994). *Feminist Media Studies*. London: Sage.

Zoonen, L. (1996). «Feminist perspective on the media». Hemen: James Curran & Michael Gurevitch, *Mass Media and Society*, New York: Arnold, 31-52.

Zurbano, B. eta Liberia I. (2013). «Análisis crítico de los discursos audiovisuales sobre la violencia de género: estudio comparado de caso», *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 19 (2), 921-939

E

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: ERAILDAKO EMAKUMEAREN DATU PERTSONALAK

Eraildako emakumearen datu pertsonalak ematea baliagarria izan daiteke hura **humanizatzeko, hura gauza bihurtzea saihestu** eta estatistika ofizialetan beste zenbaki bat izan ez dadin.

– Eraildako emakumeen **izen-abizenak** eskainiz gero, emakumeak ikusarazten eta audientziak haiekin enpatizatzen laguntzeko egin beharko litzateke.

– Eraildako emakumeen **adina** eskainiz gero, emakumeen aurkako indarkeriak **edozein adinetako emakumeei eragiten** diela azaldu beharko litzateke, baita gazteenei ere. Horrek esan nahi du, emakumeen aurkako indarkeria erauzi beharrean, erabat indarrean dagoela, puri-purian. Datu horrekin, ondo azalduz gero, **ideia faltsu hau hautsi dezakegu: indarkeria horrek belaunaldi jakin batzuetako emakumeei soilik eragiten diela**.

– Eraildako emakumeen **nazionalitatearen** berri emanez gero, haiek **atzerritarrak** zein **bertokoak** izan, helburu honekin eman beharko litzateke: transmititzea **emakumeen aurkako indarkeriak gizarte gehienetako emakumeei eragiten diela, baita gure gizartekoei ere**, indarkeria horren jatorria emakumeek gizarte patriarkaletan nozitzen dituzten genero-desberdintasunetan dagoelako.

– Eraildako emakumeen **ikasketei eta lanbideari** buruzko informazioa emanez gero, kontuan hartu beharko litzateke emakumeen aurkako indarkeriak **gizarte- eta kultura-egoera guztietako emakumeei eragiten diela**, indarkeria horrek ez duelako zerikusirik marjinaltasunarekin, emakume izatearen gertakari biologikoarekin baizik.

II. ERANSKINA GIZON ERASOTZAILEAREN DATU PERTSONALAK

– Erasotzailearen **adinaren** berri emanez gero, helburu hau hartu beharko litzateke aintzat: **adin guztietako gizonezkoak ari direla emakumezkoen aurkako indarkeria erabiltzen**, batez ere bikotekideen edo bikotekide ohien kontra.

– **Nazionalitatearen** berri emanez gero, erasotzaileak atzerritarrak zein bertakoak izan, helburutzat hartuko da **erakustea genero-erasotzaileak portaera matxista dutelako direla halakoak**, «normaltzat» ikasi baitute hala portatzen gizarte patriarkaletan, emakumeekin duten harremana hierarkikotzat hartzen dutelako, non emakumeak, gauza bihurtuta, haien mende egon behar diren.

– Erasotzaileen **ikasketa-mailari eta lanbideari** buruzko datu azalduak emanez gero, **ikuspegi estereotipatu faltsu hau saihesten laguntzeko emango dira: bazterkeria-egoeretan bizi diren gizonak baino ez direla erasotzaile**.

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

http://www.emakunde.euskadi.eus/begira